

GUaixe.net



Bertsolari txapelketako saioa etzi Etxarrin



Kultura >> 23

Sakandarrak puntan: June Kintanak brontzea Espainiako Txapelketetan eta Yanira Aristorena Nafarroako Trinkete Txapelketako txapeldun



Kirolak >> 20

Sakana ez da ixten



>> 9-11

Etxe-gabetzeen kontra, plataforma lanean

Hileko 1. eta 3. ostiralean bilera

>> 3

Uharteko haur eskola gobernuak kudeatuko du kurtso berrian

70.000 euroko inbertsioa egin da

>> 16

Emakumearen eguna dela eta jardunaldiak Irurtzunen eta Olatzagutian

Eskaintza zabala prestatuta dago

>> 14

Plazaolako bide berdea aurten iritsiko da Sakanara

Arakilgo bide sarea erabil dezake ibarrean sartzeko

>> 7

KORRIKA

Korrika pasatzen den astean

Guaixea
martxoaren 16an,
larunbatean,
publikatuko da.



Martxoak 9 Olaztiko Rallysprinta, mundiala!

Boluntario izateko deitu 948 562 107 telefonora edo idatzi bierrik@guaixe.net helbidera

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu gaitzazu

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), **Altsasu**
Telf.: **948 468 559**
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Nahia Miguel Goikoetxea

Mila zorion zure 8. urtebetetzean eta ea betetzen dituzun zure ametsak sirenitak dantzari, e? Muxu pila zure familiaren partetik.



Enara

ZORIONAK Enara zure lehen urtebetetze-agatik!!



Nahia

ZORIONAK Nahia zure lehen urtebetetze-agatik!!



Agueda eta Oier

ZORIONAK amiñe eta birhilobai zuen urte betetzi. Muxu haundi bet etxeko guzior partet.



Oihan

ZORIONAK Txato! Luis, Boltio ta gainerako guztiekin ospatuko diagu herri honen Askatasuna! Eutsi goiari kopon!



Araitx

ZORIONAK Araitx! Ez tapatu belarritxo hori, lehen aldiz tiratzeko gogotan gaude eta!



Leire

25ean 13 urte bete zeni-tuen!! Badirudi atzo jaio zirela baina... pentsa!! Gozatu izugarri. Maite zaitugu Maialen, aita eta ama.



Xabi

Munduko aita eta bikote onenari, **MILA ZORION!!** Zaren bezala zarelako maite zaitugu.



Izai Lens

ZORIONAK zure 8. urtebetetzean!! Aita, ama eta etxeko guztien partez. Muxu handi bat.



Iraia

ZORIONAK Printzesa! Ze azkar ari zaren hazitzen! Muxu handi-handi bat amatxo eta zure familiaren partez!



Alfredo

Bai, bai... eta orain gimnasia. **ZORIONAK!!!**



Alaitz Ulaia

ZORIONAK gure sur motz politt horri!! Lizarragabengoako partetik, muxu asko.



Alaitz

Gu printzesa polittena, **ZORIONAK!!!** Segi guai arte bezelako zoragarri eta alaitu. Muxu haundi haundi bet. Aita, ama, Ugaitz eta famili guztia.

marsuak

1-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Korrika kulturala

Korrika txikia. Martxoaren 2an, larunbatean, 17:30ean. Eta **Korrika afaria**, 22:00etan, Ziordiko Errekakartea elkartean.

Korrika-bazkaria, aurkezpena. Martxoaren 2an, larunbatean, Arruazun. **Korrika txikia** 17:00etan.

Korrika afaria. Martxoaren 2an, larunbatean, Lizarragako Aziturri elkartean.

Film emanaldia. Martxoaren 3an, domekan, Ziordiko udaletxean.

Antzerkia

El miedo que me habita. Martxoaren 2an, larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean. **Zarrapastra konpainia.** Sarrera libre.

Proiektzioa

Alaskatik Ushuaiara. Martxoaren 1ean, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo Iratxo elkartean. **Diaporama.** Endika Fernandez.

Zinema

Blancanieves. Martxoaren 1ean, ostiralean, 21:45ean, eta martxoaren

3an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

El cuarteto. Martxoaren 1ean, ostiralean, 22:00etan, eta martxoaren 3an, domekan, 20:10ean, Altsasuko lortia kultur gunean.

Asterix y Obelix al servicio de su majestad. Martxoaren 3an, domekan, 17:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean.

Film laburrak

Emakumeari buruzko filmak+txokolate jatea. Martxoaren 3an, igandean, 18:00etan, Pikuxar euskal txokoan. Urko Mauduitek aurkeztuta.

Txirrindula irteerak

Eulateko gaina. Martxoaren 3an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20an Bioitza kanpinetik. 56 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Mendi irteera

Ezkarai-San Lorenzo. Martxoaren 3an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

Erakusketak

Altsasu y sus gentes. Martxoaren 3ra arte 18:30etik 21:00etara, eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Begoña Salazar.**

Post 2013: Myalbum. Bienvenido al reino de la apariencia. Martxoaren 6tik 23ra 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Maria Alché, Paco Gomez eta Maider Kuadra.**

Hitzaldiak

Hondakinen errausketa porlandegietan: pertsonen osasunean duen eragina. Martxoaren 2an, larunbatean, 17:00etan Arbizuko kiroldegian. **Hizlariak: Peio Lozano eta Mario Fdez Lopez de Ahumada.**

Emakumea izatea Pakistanen. Martxoaren 6an, asteazkenean, 19:00etan, Olaztiko kultur etxean. **Hizlaria: Sarai Martin, Batistan fundazioa.**

Bertsoak

Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 2. finalerdia. Martxoaren 3an, igandean, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean. **Ikus Guaixeko 23 orria.**

Bestelakoak

Stock azoka. Martxoaren 2an eta 3an, larunbatean eta igandean, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

OHARRA

Korrika pasatzen den astean Guaixea larunbatarekin, martxoak 16, publikatuko dugu. Hortaz, martxoaren 15erako antolatutako ekitaldiak aste bat lehenago bidali.

Pausoka udal haur eskola, ate irekiak. Martxoaren 4an, astelehenean, 16:00etatik 17:00etara, Uhartte Arakilgo eskolan.

Buruhandi tailerra. Martxoaren 7an, ostegunean, 18:30ean, Olatzagutiko Akelarre udal ludotekan.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Martxoaren 1ean, ostiralean, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko gela handian, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 1ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarriko plazetan, elkarretaratzeak.

Herri batzarra. Martxoaren 1ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Grebaren ondorengoak.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 3an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Martxoaren 4an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxean.

Astelehen lilak. Martxoaren 4an, astelehenean, 19:00etan Irurtzungo plazan, gero Iruñeko 20:00etako kontzentrazioa joateko.

beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda
Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, greba orokorra, Hesian...
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratiak!

SAKANA

Etxe-gabetzeen kontra, plataforma lanean

Harremanetarako

Telefonoa: 636 968 368

e-posta:

pah.hkp.sakana@gmail.com

Facebook: <https://www.facebook.com/pahhkp.sakana?fref=ts>

Bilerak: hileko 1. eta 3. ostiralean, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikineko 1. solairuko 1. gelan.



Gaur, ostiralean, bilkura deitu du Hipotekak Kaltetutako Sakanako Plataformak Altsasuko Gure Etxean, 19:00etan. Aurreko astean bilkura egin zuten.

Ostiralean 200 bat pertsona bildu ziren

Hipotekak Kaltetutako Sakanako Plataformak deituta egin zen kontzentrazioa. Bildutakoek hipotekari aurre egin ezin diotenek etxea

ordainean ematea eskatu zioten Gobernuari. Eta atzeraeragina izatea. Horrekin batera, etxebizitzaren alokairu soziala aldarrikatu zuten, soldataren %30 baino gehiago hartuko ez lukeena. Azkenik,

etxe-gabetze prozesu guztiak gelditzea aldarrikatu zuten. Horiek dira, hain zuzen, Espainiako Parlamentuan tramitera onartutik Herri Ekimen Legegilean (HEL) jasotako puntuak.

Aldarrikapenarekin batera, ostiraleko Sakanako plataformak bere burua ezagutzera eman nahi izan zuen. Urte bat inguru daroma plataformak lanean eta Sakanan hainbat kasu dagoela jakina

razi du. Hipotekak kaltetutako pertsonen giltza eman aurretik haiekin harremanetan jartzeko dei egin zuten. Eta sakandarrei HEL-n jasotako puntuak lortu arte borroka egiteko deia luzatu diete.

gertutik >>

Beatriz Fernandez

Plataformako kidea

Nolako egoera bizi dugu Sakanan?

Kasu ugari daude. Jende asko dago ezagutzen ez gaituelako edo, zoritxarrez, haien errua dela uste dutelako gugana ez datorrena. Pasatzen ari zaiena haien erruagatik dela esaten zaie. Eta lotsa handia dute. Baina inor ez da pasatzen ari denaren errudun. Banku batek berak ere ez zigun gaztigatu etxerik gabe geldituz gero, etxea haren tasazio balioaren %60an salduko litzatekeela. Ezta gainontzekoa, pagatu ez bazenu, ordaindu beharra zenuela ere.

Jendea errudun sentitzen da?

Gu ez gara horren errudun. Erruaren zati bat badugu, une jakin batean ordaindu genitzakeen gauzetan sartzegatik da, ez besterik. Iruzur egin digute. Ge-

zurra esan digute. Inork ez digu esan etxearen balioaren gainontzeko zatia ordaintzen segitu behar genuenik. Bizi guztia bankuak izorratuta egon behar genuela eta gobernuak zapatuta. Gobernu baina legea aldatu behar duena. Guk egin dezakegun bakarra borrokan segitzea da, hemen gaudela esan eta ez garelaz isilduko. Oraindik ibiltzeko asko dugu.

Nolako egoerak bizi ditugu ibarrean?

Bere auzokideei, anai-arrebei, osaba-izebei, seme-alabei... pasatzen ahal zaiela pentsatu behar du jendeak. Kasu mota ugari ditugu: etxea erosi eta lanik gabe gertatzen ordaindu ezinik gelditu direnak; autonomoak edo enpresari txikiak, negozioa salbatzeko etxea birhipotekatu dutenak eta

etxerik gabe eta negozioerik gabe gelditu direnak; negozioa martxan jartzeko hiruzpalau abal-emaile eskatu dituztenak eta bera eta abal-emaileak etxerik gabe gelditu direnak. Denetarik dago: enpresariak, dena galdu duten autonomoak, lanpostu normala zuena eta ezer gabe gelditzen ari dena. Irurtzun, Uharte Arakil, Etxarri Aranatz, Altsasu, Olatzagutia eta beste herrietako kasuak daude.

Etxe-gabetzerik?

Etxe-gabetzeen aurreko pausuak eman dira ibarrean. Badago giltzak eman dituen eta zorra izaten jarraitzen duena. Plataformara ez dira hurbildu, edo apenas. Norbait horrela badago, borrokan segitu genezake zorrean murrizketa bat lortzeko. Duela gutxi Iruñerrian 90.000 euroko murrizketa bat lortu zen. Kasu batean etxea ordainean ematea lortu dugu. Martxoaren 15ean izanen da. Ikusten ez bada ere, Sakanan dago.

Bilerak egiten dituzue, ezta?

Laguntzera, babesa ematera joan gaitzake. Edo aholkuak jaso nahi badituzte, uneren batean kaltetuak izan daitezkeelako usate dutelako. Ongi hartuko ditugu. Jendea beldur da. Beno, hobe esan, lotsa. Ez dira egoera atseginak. Jendea elikagai bankuaz, Caritasez, arropaz eta abar galdetza etortzen da eta nora jo esaten diegu. Jende askok hori ere ez dakielako. Baina guk, batez ere, hipoteken inguruko informazioa, aholkularitza juridikoa, bankutara joatean laguntza eta babes pertsonala ematen ditugu. Jendea depresioarekin etortzen delako. Hemen gaude. Jendea etorraiten. Lagundu dezake. Eta laguntza eska dezake.

Herri Ekimen Legegilea eraman duzue parlamentura.

Tramitera onartu zuten babes ten zuten milioi eta erdi sinadurei esker, herriaren presioagatik. Baina, batez ere eta zoritxarrez, egun hartan izan ziren hiru suizidioengatik. Eta hori da tristeena. Ezin zuten HEL

bazterrean utzi, egun berean zezenen inguruko beste HEL bat onartu behar bazuten eta egun berean hiru hildako izan zirenean.

Sinadurak biltzen aritu zarete?

Festetan eta azokan sinadurak biltzen izan ginen. Lan asko egin da. Denetarik erantzunak izan ditugu. Jakinaren gainean egonda laguntza ematen dutenena, eta besteengatik borrokatzea zer den ahaztu zaion pertsonenak. Normalean ongi hartu gaituzte. Kontua da, gero, jendea ez dela kalera ateratzen.

Zer espero duzue?

Gobernuaren ezetza eta, kalean, borroka. Etxea ordainean ematea onartu arte borroka egingen dugu. Ezin da onartu Grezian lehen etxebizitzaren etxe-gabetzerik ez egotea, legez ezin delako, eta hemen bai. Rajoyk aurreratu du ez duela onartuko etxea ordainean ematea. Ahalik eta mobilizazio gehien sustatzen saiatuko gara, gero eta gehiago izateko.

JUANLUZENE
SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571

ODERITZ

nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. Nº 272/04

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Raf Atxuri

Burdinak nola urtu

astekoa

barrutik kanpora

Proiektu berria martxan

Zernahi gudu, gatazka latz edo auzi odoltsuren ondoren taxuz egin beharreko lana da armen deusezte,edo kontrolzorrozpean gordetzea. Amaiezina zirudien enegarren euskal armadun matxinada bere azkenetan dagoelarik ika-mika franko eragin ditu azken burdinen norakoak. Izan ere, kontu zinez serio eta korapilotsua da burdina guztien beste norbaiten esku uztea, are gehiago ziklo politiko berri bati ekiteko borondaterik badago.

Historian zehar hainbat eredu eta esperientzia gertatu dira munduko bazterretan, beren amaiera hobe edo makurragoekin. Espainiako Gobernua, ordea, ez omen dago prest inoren aholkurik entzuteko, inondik ikasbiderik hartzeko eta nazioarteko egiaztatzaileen bisita eta jardunari mesprezu eta burlarekin erantzun diote. Ezjakintasunaren eta arduragabekeriaren tontorrean PPkogoikargu batek esan du armen uztea

ez dela batere arazoa, armak berari ematea daukatela burdingordelariak eta kitto. Espainiar agintariak halako proposamen argelak eta kalapitosak egitea ez da kontu berria. Makurragoa da Espainiak historian barrena nolako “konponbi-deak” gauzatu dituen. Historia garaikidean urrunagora gabe, Bergarako besarkadaren konpontxo ustela daukagu hurrengo gerla baten mintegi eta hazi saila.

Gero etorri ziren Kuba, Filipina eta Rif-eko (Maroko) auziak. Denak gudu anker eta porrot gaitzetan bukatuak Espainiaren dako. Behingoagatik guduari ekin ez Saharakoan, baina hondamendi politiko erraldoiarekin amaitu zen hura, garai hartako eta gaur egungo sahararrei galdetzea besterik ez dago. Aurrekariokin ez dakit taxuzko ezer espero daitekeen espainiar boteretik.

Sakanak bizi duen egoera ikusita eta Altsasuri gogorki eragiten dion egoera kritikoa ikusita, horrek Cáritasen laguntza eskatzen duten pertsona kopurua handiagoa izan dadin eragin du. Oraingo, gure lana elikagai banaketan nagusitzen da, baina, etengabeko arropa eskaerak ditugunez, egitasmo berri bat martxan jarri nahi dugu. Hau aurre-ateratzeko, Altsasuko Udalararen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren laguntza dugu. Aipaturiko proiektua jantzitegi baten sorrera da. Orain arte Altsasun pertsona bolondres bat zegoen, lau laguntzailerekin, erabilitako arropa etxez-etxe jasotzen zuena, gero garbitu, konpondu eta lisatzen zuena, azkenik, Gurutze Gorriaren bitartez banatzeko. Hemendik aurrera, arropahori jantzitegian bertan banatzeko izango da. Esan beharra dago jende askok arropa ematen duela, dendaren bat barne eta gaur egun badagoela baita ere beste kolaboratzaile bat: Luis de Redin botika. Hau da orain dugun arropa jasotze puntua. Amaitzeko esan behar dugu proiektu honen antolakuntza bukatu gabe dagoen arren, epe motzean aurrera ateratzea espero dugula.

Caritas

hara zer dien

Aurreiritzi, estereotipo eta zurrumurruetatik, integratua, kohesionatua eta aukera berdintasunean hezitako hiritarrez osaturiko gizarterantz....

Gizarte orori kostatzen zaio aldaketek egokitzea, eta migrazioak ez dira salbuespena. Gainera, imaginario sozialak, areagotu egin du migrazioen alde ezkorra, kultura aniztasunaren bat batekogaraka daren gaitik, edo etorkin eta bertakoen arteko hartu-eman eskasengatik. Krisi egoerak zaildu egiten du gizarte justu eta solidario baten bultzada, promozioa. Zurrumurruek posizio ideologiko eta etikoa azalarazten dituzte “eztabaida ezineko” argudiopean. Askok eta asko dira entzun eta

erabiltzen diren immigrazioa edo etorkinen inguruko zurrumurruak. Esaterako: - “Ezin ditugu etorkin gehiago onartu: gehiegi dira”. - “Laguntza sozialetatik bizi eta baliatzen dira”. - “Lana kentzen digute”. - “Migrazioek matxismoa eta genero biolentzia areagotzen dute”. - “Etorkinek ez dute integratu nahi”. - “Etorkinak osasun sistemaz baliatzen dira eta urgentziak oztopatzen dituzte”. - “Ikasleri etorkinak hezkuntza

maila jaisten du eta getoak sortzen ditu ikastetxeetan”. - “Pilatuta eta baldintza txarretan bizi dira. Horrek alokairu merkaturak garestitzen du”. - “Etorkinek erlijio kontuak mahaigaineratzen dituzte eta laikotasuna geldiatu”. - “Espazio publikoa betetzeaz gain, gaizki erabiltzen dute”. - “Etorkinek ez dituzte arauak ezagutzen, ez dute gizatasunik”. Errealitate honen aurrean, ezinbestekoa da logika ezberdinak erabiltzea: immigrazioa gizatasun eta justizia planoetan jartzea,

Nazioarteko Giza Eskubideen Aitorpenaren babespean aritzea, alegia. Era berean, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioek inspiratu behar gaituzte. Zurrumurruei aurre egiteko, zehaztasunez hitz egin behar da, legea eskuan eta zurrumurruari buelta emanez. Hurrengo atalean, Sakanan zehar zabaldua dagoen zurrumuru bati emango diogu buelta... Beraz, ADI!!!! Begoña Zestau Baraibar, Immigrazio teknikaria

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Saiatuko al gara gu ere?

Maialen Pelaez eta June Bengoetxea, Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz

“Iaz hasi zen dena, Madrilgo hainbat familiak, lanak behartuta, Euskal Herrira etortzea erabaki zutenean. Gure herrira iritsita, hezkuntzaren inguruko kezkek buruhauste handiak eragin ziz-

kieten, beste hizkuntza bat erabiltzen den herrialdera etorri zirela jakitun zirelako. Beraz, seme-alabek euskaraz ikas zezaten nahi zutenez, Eusko Jaurlaritzara eta Nafarroako Gobernura jo zuten laguntza eske, baina ez zuten lortu. Iribas jaunarekin hitz egitera ere iritsi ziren, bera nafarra zela eta bere hizkuntza gatzelania zela erantzunez! Egoera ikusita, familia etorri

berriek A ereduari matrikulatu zituzten haurrak. Seme-alabagazteenak, hala ere, D ereduari sartu zituzten. Gaur egun, seme-alabak eta zenbait ama euskara ikasten ari dira eskolaz kanpoko klaseen bitartez.” Familia hauek argi daukate zein den gure hizkuntza, gure hezkuntza sailburuak baino argiago ikusiere. Gure herriaren parte izateko, gure hizkuntza ika-

si eta gure hizkuntzan bizitzea beharrezkotzat dute. Dena den, hilabete hauetan Altsasuko errealitatea zein den ezagutu dute, eta euskaraz bizitzea ezinezkoa dela konturatu dira. Hori dela eta, etorkizuneko Altsasu euskalduna eraikitzen parte-hartu nahi dute. Pentsa dezagun gure identitatean, gure hizkuntzan, zer garen, zer izan nahi dugun. Zer nolako

herria nahi dugu? Kanpotik etorri behar al zaizkigu begiak irekitzera? Prest al gaude aspalditik barneratuak ditugun ohiturak aldatu eta behingoagatik aldaketak egiten hasteko, konpromisoak hartzeko? EUSKARAZ BIZI! Osorik: www.guaixe.net

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • [948 562 107](mailto:948562107@guaixe.net) • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoieta Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Garazi Barandalla
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eskatu Guaixeko inauterietako argazkiak
Kiki argazki dendan

guaixe.net

lortia plaza • Altsasu • 948 46 90 23

KIKI
ASENSIO

>>



Nahikoa lan eman digu elurrak.

Txuriarekin gorabeherak

Aste honetan elurrak hainbat gora-behera sortu ditu sakandarren egunerokotasunean. Astelehen gauean mara-mara aritu zen eta asteburuan egindako elurteari gehituz 40 cm iritsi zen elur kota Burundan. Arazo gehienak astearte goizean izan ziren. Mikel Donea institutuko eta Iñigo Aritza ikastolako autobusek ezin izan zuten ohiko bidea normaltasunez egin. Institutuko klaseak, hala ere, eten behar izan zituzten haritz baten erorketak elektrizitate horniduran etena sortu zuelako eta, ondorioz berogailurik eta argiztapenik gabegelditu ziren. Horrez gain, ikasleak zeramatzan autobus bat elurrarekin irristatu eta gurutzatuta gelditu zen 9:11n Etxarri Aranatzen. Urbasako portua itxita egon da egun batzutan elurragatik. Hurrengo egunetan izandako izozteekin oinezkoek tentuz ibili behar izan dute.

SAKANA

Zaborren inguruko zalantza guztiak argitzeko

Hondakin bilketa sistema berriari buruzko informazio bulegoak zabaldu ditu Mank-ek Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Olatzagutian. Herritarren zalantza guztiak argitzeaz gain, sakandarron proposamenak jasoko dituzte

Sakanako Mankomunitateak hondakin bilketa sistema berriari buruzko informazio bulegoak zabaldu ditu Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Olatzagutian. Aste honetan ireki dira bulegoak, hondakin bilketa eta tratamenduari buruz sakanadarrek izan ahal dituzten zalantzak argitzeko, eta baita ere herritarrek gai honen inguruan izan ahal dituzketen proposamenak jasotzeko.

Konpostajearen interes handia
Mankomunitateko informatzaileak ikusten ari dira bizilagunek interes handia dutela hondakin sistema bilketa berrian, konpostajearen bereziki. Nonbait, bizilagun asko animatzen ari dira konpostajea egitera. “Batzuek etxean bertan egin nahi dute autokonpostajea, eta beste batzuek bizilagunen artean auzo-konpostajea egin nahi dute. Informazio bulegoetan azalpen guztiak jaso ahal dituzte eta konpostajera-ko gida bat jasoko dute” adierazi du Mikel Navarro Mankomunitateko komunikazio teknikariak.

600 konpostagailu baino gehiago
Nahiz eta konpostajea egin ahal



Irurtzungo informazio bulegoa. UTZITAKOA

izateko lehen izen emate epea bukatuta egon, Mankomunitateak gogorarazi nahi du urtean bar-nasakandarrek oraindik ere aukera badutela izena emateko. Izan ere, bizilagunen interesa handia da. Mankomunitatearen konpostajea egiteko izena ematearekin batera, konpostagailua, haizeagailua, kuboak, konposta egiteko ikastaroa eta jarraipena jasoko ditu herritarrek. Horretaz gain, zabor fakturan Mankomunitatearen tasan %15eko deskontua izanen du.

Zabor organikoak ongari naturala den konpost bikainean bilakatzeko gain, dena dira onurak, beraz. “Kalkulatzen da Sakanan 2.800 etxebizitza potentzialak direla autokonpostajea egiteko. Aurretik 300 konpostagailu banatuta zeuden,

Informazio bulegoak

Irurtzunen (Arakilgo bake epaitegiaren egoitzan)
Etxarri Aranatzen (Udaletxean, turismo bulegoa dagoen tokian).
Olatzin (Kultur Etxean)
*Ordutegia: Astelehenetik ostiralerara 10:00etatik 13:00etara eta asteartetan eta ostegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Inkesta

Hondakin bilketa sistema berriari buruzko lehenengo parte-hartze bilerak burututa, etxeetan bilera horien laburpena eta inkesta bat jaso dute sakandarrak, bete dezaten. Herritarrek betetako inkesta eta euren ekarpenak aipatu bulegoetara eta zehaztutako tokietara eramaten ari dira egunotan. “Bai kontzejuetan bizi direnak baita udalerrietan ere, bulegoetara joaten ari dira haien zalantzak eta proposamenak jakinaraztera” gehitu du Mikel Navarrok.

nabarmendu du Mank-eko komunikazio teknikari Mikel Navarrok.

Bazkide zozketa

Otsaileko sarituak:

- Aizea Beraza Bengoetxea**
Graxiana aterpetxean bi lagunentzako bazkaria
+Trimanerako 4 sarrera
- Alvaro Etxarri Perez**
Ekainberri kobazuloetarako 2 sarrera+Trimanerako 4 sarrera
- Ainhua Ulaia Beltza**
Trimanerako 4 sarrera
- Jose Ignacio Beltza Aldasoro**
Trimanerako 4 sarrera

MARSUKO SARIAK:
- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETAN
+ TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRAREN 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA



Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

- PINPILINPAUSA**
ALTSASU
50€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.
- TEXARTU**
IRUNEA
Eskaintza kanpainaren arabera.
- CLINKER**
OLAZTI
Menuarekin kafea eta kopa

- doan.
- SORKUNDE HARATEGIA**
ALTSASU
50 euroko erosketetan etxeko produktoa doan
- BERRIA EGUNKARIA**
Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.
- PINCEL**
ALTSASU
Markogintza guztietan,

- %15eko deskontua.
- IKER KIROLAK**
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.
- URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA**
ETXARRI ARANATZ
%20ko deskontua kontsultan.

MARTXOAK 9
2013

I - RALLYSPRINT

OLAZTI URBASA

SAKANA MOTORSPORT

I. GUAIXE SARIA



ordutegia/horario:
14:00tan 1.tramoa. HASIERA
ordu t'erdira 2.tramoa
ordu t'erdira 3.tramoa
ordu t'erdira 4.tramoa

Antolakuntza:
Guaixe.net **OLAZTIKO UDALA**

SAKANA

Langileak beharrean. ARTXIBOA

Gizarte-errentaren 10 hartzaile kontratatu zituzten 2012an toki erakundeek

Nafarroako Gobernuaren 42.143,5 euroko laguntza izan zuten horretarako

Gizarteratzeko errentaren eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko laguntzen 10 hartzaile kontratatu zituzten joan den urtean ibarreko 5 udalek eta Sakanako Mankomunitateak. Kontratazio horien bidez lan-merkatuan sartzeko zailtasun

handienak dituztenei aukera eman zieten.

Nafarroan, guztira, 484 hartzaile izan dira kontratatuak, Nafarroako Gobernuak enpresei, irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta toki-erakundeei emandako laguntzen bitartez. Gobernuak 2,01 milioi euro bideratu zituen kontratazio horiek egiteko.

Jasotako diru-laguntzak

Toki erakundea	Gobernuaren diru-laguntza	Kontratatu kopurua
Irurtzango Udala	12.643,05	3
Lakuntzako Udala	4.214,35	1
Arbizuko Udala	4.214,35	1
Etxarri Aranazko Udala	8.428,7	2
Olatzagutiko Udala	8.428,7	2
Sakanako Mankomunitatea	4.214,35	1
Guztira	42.143,5 euro	10



Lapuebla de Labarkako Quercuseko upela.

Emaizta enologiko ez egokiak

Ibarreko haritzekin ardoa ontzeko kupelak eginen zituztela argitaratu genuen 2009ko lastaila akaberan. Toneleria Quercus, Lapuebla de Labarka herriko upeltegiak, jatorri izendapena duten kupelak egiteari ekin zion. Irurtzun, Arbizu, Dorrao, Etxarri Aranatz eta Altsasuko haritz kandugabeak (quercus petraea) erabili zituen upeltegiak. Errioxa jatorri izendapeneko ardoak ontzeko erabiltzen ari dira. “Nortasun propioa” zuen ardoa egiteko 700 kupel egiteko asmoa zuten. Gaur egun Irati aldeko haritzekin ari dira, baina ez dute baztertu Sakanakoak berriro erabiltzea.

Enpresarekin harremanetan jarri da Guaixe. Jakinarazi digutenez Sakanako haritzek ez dute “emaizta enologiko egokirik eman”. Azaldu dutenez, “haritzek tanizitate handia dute, ardoan astringentzia nabarmena utziz”.

Bestela esanda, upel horietan ondutako ardoa edatean sentsazio laka bat nabarmentzen da; das-tamen-papilak uzkuritu egiten ditu, ezpainak tinkatu, listu-jarioa eten eta sentsazio latza sortzen du mingain eta aho-sabaian. “Tanizitate handia zuraren lixibazioaren bitartez leundu daiteke”, gaineratu dute upeltegitik.

Upel-oholakegiterakoan errendimendua ez zela oso ona izan ere argitu digute upeltegitik: “zurak begi asko zituen eta etengabe saneatu beharra zegoen. Baina erabiltzen ari garen herrialdeko gaitz nontzekoen antzeko errendimendua du”. Upeltegitik azaldu zuten, egitasmoa aurkeztu zuten, “kupelakegiteko haritz zuzenak behar dira. Egurrari erabiler noble bat emateko basogintzan lan egin behar da, basoaren mantenua eta jasangarritasuna ziurtatu dezakeena”.

BAIZA motor Flutoen Mantenimendua
Bosogintza Lorezaintza eta Nekazaritzako makinak
Asier Aldasoro Sukia
www.baizamotor.com
baizamotor1@gmail.com
Bunibideak, 8
31020 ETXARRI-ARANATZ (Nafarroa)
Tfnoa: 948 461 734

Gruas Servicio 24 h
BAIZA motor
Asier Aldasoro Sukia
Tfnoa: 948 461 734
C/ta Hermanas, 3A
31002 IRURTZUN (Navarra)
www.baizamotor.com
gruasbaiza@gmail.com

TALLERES RAGA
www.ragatalleres.com
Tfno: 948 461 734

EULATE Servicios Eléctricos

SEGUROS HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

salmen etxea estudio de cocina y baño

IGORROIN MOTOR ALDEKARREKOLANTZ

maksa www.maksa.com

LASTADI S.L. Materiales de Construcción
Aldas, Pampalona, 20 • Apdo. Correo 140
31000 ALZASU / ALZASUA (Navarra)
Tfno: 948 564 185 • Fax: 948 467 918

Diario de Noticias

Txartel Imprenta - Papelería

clinker

Goiko LOREZAINZA

KOXKA TABERNA ALZASU Tfno: 948 56 29 52

denak

EGURDIAIN

ANTONIO GARRIGERAS

erburua

VALCARCE

El Ritmo de Navarra www.ritmo.com

MAISHENEA OGBA SAIZETXEA

RAC

FEDERACION NAVARRA DE AUTOMOVILES

NAVARRA DE AUTOMOVILES REGISTRO

Gobierno de Navarra

I - RALLYSPRINT

OLAZTI URBASA

SAKANA MOTORSPORT

Plazaola bide berdea

» Arakil / Irurtzun

Bi aldaketekin, Plazaola ibilbidea berreskuratzekeo proiektua aurrera

Aurten bertan Irurtzun Andoainekin lotuta gelditu daiteke

Asteartean bilduzen Lurraldearen Antolamendu Batzordea, eta argi berdea eman zion Plazaolako lehengo ibilbidea errekuiperatzeko Udalez Gaineko Eragina duen Proiektu Sektorialean bi aldaketa egiteari. Irurtzun eta Iruñeko zatiko ibilbidean eginen dira bi aldaketa horiek, Sarasako eta Aintzoaingo Kontzejuek eskatuta. Batzordeak Nafarroako Gobernuari bere erabakia jakinaraziko dio, hark onartu eta jendaurrean jartzeko.

Plazaolako zati hori berreskuratzekeo proiektua Plazaola Turismo Partzuergoak sustatu zuen 2010ean, herritarrek aisialdi-jardueretarako erabil zezaten. Trenaren ibilbide guztia berreskuratzen denean Iruñea eta Donostia arteko ibilbideko 85 km-etan oinez edo bizikletaz ere ibiltzeko aukera izanen da.

Partzuergoko gerente Maitane Ezkutarik azaldu digunez, Iruñera bitartean beharrezko den espazioa zein den badakite. “Aurten haien balorazio ekonomikoa egin eta gero desjabetu beharko litzateke”. Finantziarioa lortzeko ezinbestekoa da erabilera edo jabetza izatea. “Nafarroako Gobernuak desjabetzea eginen balu, atxikimendua azalduko luke, eta hori oso baliagarria litzateke Ingurumen Minis-



Ibilbide turistikoan azalpenak jasotzen. ARTXIBOA

terioari proiektua aurkezterakoan. Berak finantzatu behar baitu lana”. Tramite horiek aurten egitea espero du Ezkutarik.

terioari proiektua aurkezterakoan. Berak finantzatu behar baitu lana”. Tramite horiek aurten egitea espero du Ezkutarik.

Sakanako ibilbidea

Asteartean moldatu zen proiektuan sartzen den ibilbideak bost udalerrri hartzen ditu: Berriobeiti,

Berriozar, Itza Zendea, Arakil eta Irurtzun. 20 km guztira. Egitasmoa sei zatitan banatu dute. Bosgarrena Aizkorberri dagokiona da. 1.525 metro luze da. Zati horretan 620 metroko tunel bat dago. Tunela eta jatorrizko bidearen zati batzuk gaizki daudela ikusita, aukerako ibilbideak planteatu dituzte, baina ez

dute guztiz baztertu jatorrizko trenbidea berreskuratzea.

Seigarren zatia Irurtzungo eta 780 metro luze da. Bidea datorren bide zaharretik eta Irurtzungo geltoki zaharra zegoen lekuan bukatzen da; geltoki hori desagertuta dago gaur egun.

Tunelak

Plazaolaren Sakanako ibilbidean bi tunel daude, Aizkorberria eta Irurtzungo Artadiakoa. Barnean izandako luiziek bidea estali dute. Ezkutarik azaldu digunez, proiektuan ez dago tunelak berreskuratzea aurreikusita: “gauegun ezin gara horretan sartu, bestela proiektuak asko garestitzen dira”. Gogorarazi digu Artadiako tunela berreskuratzekeo proiektu bat zegoela, baina urtetik urtera garestiagotu eta baztertu egin zela. “Bide alternatibo errazak daude bi kasuetan”.

Udarako Plazaolak bide berdea 6,5 km berri izanen ditu, Imozko zatia zabaltzean. Andoain eta Imotz artean 45 km-ko ibilbidea egonen da. Ezkutarik azaldu digunez, zati horretan Mugiron itxitako tunel bat dago. “Han aukerako bidea opatzea zailagoa da, basoan delako”, argitu digu gerenteak.



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen



»

Europako sarea

Plazaola bide berdea Iruñera iristean oinezkoendako eta txirrindulariendako aukerak handitu egiten dira: Argako ibilbidea, Pirinio aldearen daraman Iratiko bidea edo Donejakue bidea eta handik Lizarrara joan eta han Vasconavarro bide berdea hartzeko modua luketelako.

Plazaola Turismo Partzuergoan lanean ari dira haien bide berdea Bidasoaldeko tren txikia bidearekin lotzeko. Ezkutarik azaldu digunez, “horretarako, Latasa, Basaburua, Ultzama eta Doneztebe lotuko duten bide baten aurre-

proiektua eginen dugu aurten”. Bidasoako natur bidea Europako Eurovelo bide berdeen sareko zatia da eta horrek kontinentean ikusgarritasuna eta erabiltzaileak irabaztea ekarriko dio Plazaolari.

Ezkutarik nabarmendu digunez, “natur bideak potentzial handia dute. Bultzada batekin produktu turistiko indartsua lortzen dugu”. Bestalde, datu bat eman digu: “alemaniarren %20 bizikletan joatenda oporretara. Europa iparraldean asko ibiltzen da bizikletan. Landu beharreko esparru bat da”.

»

Aurten Irurtzunera

Partzuergoko gerenteak esan digunez, Mugiro aldean beste arazobat ere badute. Iturburutik Irurtzuna ura daraman hodia Plazaolako ibilbidean dago. “Ezin da makinaria sartu eta hodia hautsi, Irurtzun ur hornidurarik gabe gelditu daitekeelako”. Zati horretan bidea bere horretan utziko dute, garbiketa lan batzuk egin ondoren.

Ibilbidea Sakanara nondik sartuaztertzen ari dira partzuergoan. Izan ere, trenbidea zena gaur egun errepedea da zati batean. Handik joan edo malkarrean

zehir jendea bideratu aztertzen ari dira. Horretaz gain, ibaia eta autobia ere oztopo dira. “Sakanara sartzeko Arakilgo bide sarearekin lotzea eta horrela Irurtzuna iristea aztertzen ari gara”, azaldu digu Ezkutarik. Cederna-Garalurren bidez Plazaola Turismo Partzuergoak Europako dirulaguntza eskaera eginen du. “Ez da obra handia eta aurten egitea espero dugu”, argitu du kudeatzaileak. Andoain eta Irurtzun artean 54 km-ko ibilbidea ondua legoke horrela.

Irurtzun Ziordia

Sakanako Mankomunitateak 2010ean ibarra zeharkatuko lukeen oinezkoendako eta txirrindulariendako bide baten proiektua egin zuen. 358.000 euroko aurrekontua zuen, baina hura egiteko Mank-ek ez zuen diru-laguntzarik lortu. Ordutik, egitasmoa gauzatzeko finantziarioa bila aritu dira ibarreko erakundeak. Adolfo Araiz kudeatzaileak azaldu digunez, “aztertzen ari gara proiektua zatiak egitea edota web orrian haren berri ematea”.

Stock+ Pintxo pote

Burunda Pilotalekua

Altsasu

Martxoak 2 eta 3

Pintxo pote:

Biltoki • Kukua • Lezea
Goya • Las Vegas • Kaixo
Fortxo • Espejo • Iribide

Ordutegiak:

Larunbata
10:00–14:30
16:00–21:00

Igandea
11:00–14:30
16:00–19:00

Gernika • Lurrazpi • Arkangoa
Gautxori • Urtzi • Xume • Koxka

XURRUT
AKTIBOEN ERKIDETZA

IV. Feria

Stock azoka

SAKANA

Emakumeen aurkako indarkeria aurreikusteko azterketa europarra

Arriskua jaisteko modua eta emakumeei ostatua eta laguntzak eskainiko dizkien zerbitzu integrala nola eman aztertuko ditu

From street to home izeneko proiektuan Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) azterketa bat egingen du. Helburua? Emakumeen aurkako indarkeriaren arriskua jaisteko bideak aztertzea, arazoari bere osotasunean aurre eginez, eta talde horrentzako ostatu eta gizarte laguntzak eskainiz. Izaskun Andueza lakuntzarrek, Gizarte Laneko Saileko ordezkari irakasleak, koordinatzen du lana Iruñean.

NUPetik azaldu dutenez, bere ikerketa taldearen egitekoa Europar Batasunean zerbitzu berezi batzuk ezartzea ea posible den aztertzea izanen da, indarkeriaren



Ikerketa egin duen lan taldea, Izaskun Andueza lakuntzarra tartean dagoela (ezkerretik hasita laugarrena). NUP

biktima diren edo izateko arrisku handian dauden behar handietako emakume-taldee ostatua eta gizarte-laguntza eskainiko dizkie-

na. Horretarako, Nafarroan eta Espainian eskaintzen diren mota horretako zerbitzu integralen erradiografia egingen dute. Erakunde

eta erabiltzaileen iritzia jasoko dituzte, "atzemandako beharren eta eskaintako zerbitzuen arteko egokia ote den jakiteko". NUPeko

eta beste herrialdeetako ondorioak agiritan bilduko dituzte eta gomendioak zabalduko dituzte.

Europa

Birmingham City University buru duen ikerketa horretan, Erresuma Batuko bi gizarte-erakundek, Alemaniako, Bulgariako eta Norvegiako unibertsitate banak parte hartzen dute NUPekin batera. Proiektua 2013an eta 2014an egingen da, DAPHNE III programaren bidez finantzatuta. Programa hori Europar Batasuneko ekimena da, haur, gazte eta emakumeen aurkako indarkeria aurreikusi eta haren aurka borrokatzeko.

Anduezarekin batera beste irakasle hauek ere lanean ari dira: Rut Iturbide eta Rubén Lasheras, Gizarte Laneko irakasle elkartuak; Lucía Martínez, NUPeko doktoretza aurreko bekaduna eta tesia irakurri berri duena; eta Nerea Zugasti, NUPeko Soziologiako lizentziaduna eta doktoregaia.

Lakuntza

Heriotza arriskuen eta kasuen aurreikuspenak lortzeko metodologia proposamena

Jaione Etxeberria Anduezak bere doktoretza-tesian gaixotasunen banaketa-geografikoari eta denbora-bilakaerari aplikatutako estatistika-ereduak ebaluatu ditu

Berriki, Jaione Etxeberria Andueza bere doktoretza-tesia irakurri du Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) eta kalifikazio handiena lortu du: gai cum laude. Matematikan lizentziaduna, Etxeberriak, gaixotasunen irudikapen kartografikoari buruzko doktoretza tesia egin du. Eremu geografikoaren arabera dauden heriotza (edo intzidentzia) arriskuak kalkulatzeko erabilitako eredu batzuk sakon ebaluatu ditu bere tesian.

Lakuntzarrek esan duenez, "aurreikuspenak ematen dituzten estatistika tresnak oso erabilgarriak izan daitezke gizartearen dako; osasunera bideratutako ekonomia baliabideen banaketa hobetzen lagun dezakete". Etxeberriak azaldu duenez, minbiziaren prebentziora bideratutako bali-

bideen banaketa orain arte erabilgarri dauden hilkortasun kalkuluetan oinarrituta dago, "baina zifra horiek berandu datoz, minbizi-erregistroak eguneratzea konplexua baita. Horregatik, estatistika tresnak eta ereduak oso interesgarriak dira analisi hori egiteko". Hau da, hainbat eskualdetako edo osasun-arloetako heriotza edo intzidentzia arriskuen aurreikuspenak emateko.

Bi parametro uztartuz

Bere tesian proposatutako metodologiaren bidez, hainbat tokitan izan daitekeen minbiziaren heriotza-arriskuen eta kasuen aurreikuspenak lortzen dira. Tesia ontzeko Etxeberriak estatuko 50 probintziako 1975-2008 aldiko prostata minbiziaren heriotza datuak erabili ditu, eta 2009-2011 aldirako heriotza aurreikuspenak ematen ditu.

Normalean, halako lan estatistikoe espazio eta denbora para-

metro bana dituzte. Bakoitzak gaitzaren eredu geografikoa eta denboran zehar izan duen bilakaera aztertzen du. Batzuetan, espazioa eta denbora konbinatzen dituen hirugarren parametro bat ere izaten da. Lakuntzarrek azken parametro mota horrekin lan egin du bere tesian: "beste proposamen batzuekin alderatuta, tesian garatutako espazio-denbora elkarrenergineko estatistika-eredua da aukerarik onena hainbat eremutarako arriskuen aurreikuspenak eta aurreikuspen-tarteak egiteko".

Etxeberriaren tesia disease-mapping edo gaixotasunen irudikapen kartografikoa izenaz ezagutzen den estatistikaren esparruan sartzen da. Maria Dolores Ugarte eta Tomas Goikoa NUPeko Estatistika eta Ikerketa Operatiboa Saileko irakasleek zuzendu dute lakuntzarren lana: Space-time disease mapping: modelling and forecasting.

Jaione Etxeberria Andueza



Matematikako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun irakasle laguntzaile da NUPen eta elkarlanean aritzen da Nafarroako Osasun Publikoko Institutuan-CIBERESP (Epidemiologiako eta Osasun Publikoko Sareko Ikerketa Biomedikoko Zentroa). Ikerketa gisa, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako bi proiektutan parte hartu du, hamaika artikuluren egile-kidea da zientzia-aldizkarietan, eta hogeita bost aurkezpen egin ditu nazio eta nazioarteko biltzarretan.

MOTZEAN

Emakumezkoak zinemara doan

Heldu den ostiralean Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Altsasuko Udaleran Emakumearen Bilguneak egitaraua prestatu du data hori dela eta. Eskaintzen artean emakumeek ostegunetan zinemara doan joateko aukera dago. Martxoko lehen hiru ostegunetan, 22:00etan, izanen diren emanaldietara pagatu gabe sartzeko aukera izanen dute emakumezkoek. Horretarako emanaldia

hasi baino ordu bat lehenago jasotzeko behar dute gonbidapena.

Polikarporen eguna Sagrado Corazon ikastetxean

Gaur zaindariaren eguna ospatuko dute Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxea. Domekan hasi zituzten ekitaldia, argazki rally digitalarekin. Gaur, berriz, pintxo lehiaketa, gimnasia erritmikoko saioa eta artisten erakustaldia. Ospakizunaherriari zabalik da eta nahi duena joan liteke.

Aukeratu Guaixe

Proiektu zenbakia: **50410**

Nafarroan erroldatuta egotea
eta 18 urte edo gehiago izatea.
Bete formularioa, sinatu eta ekarri bulegora.
Zuri esker 10€ko laguntza jasoko dugu.
www.cajanavarra.com



O 28: Greba orokorra Sakanan

Ibarrerako alternatiba zehatza

Sakanak bizi duen egoerari buelta emateko alternatiba badago, “eta Nafarroan beste eredu sozio ekonomikobateraitzeko baliodu gainera”. Halaxe ziurtatu zuen atzokoan Gaizka Uhartek, greba orokorra deitu zuten sindikatu, alderdi eta eragileen izenean. Horretarako bi premisa daudela ziurtatu zuen. “Gure etorkizuna defendatzeko denok parte hartuko dugun garapen eredu bat eraikitzea” da lehenena. Bigarrena, “enpleguaren defentsa da eta gure eskualdean lanpostu deuseztatena eragozte”.

8 puntu
Bigarren premisa gauzatzeko, Uharteren ahotik, grebaren deitzaileek “premiazko eta beharrezko 8 puntu” eman zituzten. Lehenik, ibarrean kaleratzeak gelditzea. Horri lotuta Sunsundegui ez ixtea eta Sakanan 400 lanpostu gehiago galtzea galaraztea. Bigarren puntuan eskatzen da enplegu duina mantentzeko laguntza publikoak ematea.
Horrekin batera, atzo Iruñean eskatu zen administrazio publikoaren kontratu eta adjudikazioetan oinarritzko irizpidea izatea lanpostuen mantentzea eta herrialdeko lan hitzarmena mantentzea. Aldi bere-



Manifestazioa gertutik zaindu zuen Polizia Nazionaleak.



Pankarta nagusia, Carlos III. etorbidetik.

an, inbertsio publikoa enplegua mantentzeko eta sortzeko beharrezko jo zuten. “Bereziki enpresa publikoetan eta sortulitezkeen tokiko-ekimenetan”.
Greba deitzaileek gaur egun dauden enplegu planen eraldaketa “erradikala” eskatu zuten. Berriek “gure eskualdeen garapenean oinarrituta egon behar dute

eta udal eta gizarte eragileen elkarlanean egin behar dira”. Aldi berean, sektore publikotik prestakuntza sustatu beharra eta Altsasuko Lanbide Heziketa institutua potentziatu beharra aldarrikatu zuten.
Halaber, lana banaketa aldarrikatu zuten. Horretarako lanaldia murriztea eta ordu estrak desagerraraztea eskatu zuten. Lanaldiak

handitu gabe eta ordu estrak debekatuz Sakanan 400 lanpostu sort litezkeela ziurtatu zuten. Sunsundeguiaren kasu salatu zuten, gobernuak kudeatuta hilero, batz bes-

te, 1.500 aparteko ordu egin zirela. Zerbitzu publikoetan ere enplegua sortzea eskatuz, “osasuna eta hezkuntza arloetan milaka lanpostu suntsitu dira”.

Gobernuak bizkarra eman digu

Sakanan atzo bizitako greba orokor eguna “ibilbide baten ondorio da, inflexio puntu berri bat” Sakanako LABeko arduradun Gaizka Uhartek esan zuenez. Manifestazio akaberan salatu zuenez, industria jardueren suntsiketarik ibarrean utzi dituen 1.972 langabetuak “ez dira kasualitatea. Sakana industria basamortu bihurtzeko erabaki politiko baten ondorio da”. Iruñerrian kokatutako multinazional handien mendeko Nafarroako eredu salatu zuten, “eredu hori desegin da eta azpian harrapatu gaitu”. “Sakanatik eta Sakanarako alternatiba aldarrikatzen ari gara. Hau da, Nafarroatik Nafarroarako”

adierazi zuten Iruñean. Sakanan luzera begira eta adostasunean oinarrituriko beste garapen eredu bat martxan jarri nahi dela adierazi zuen Uhartek eta hori aurrera eramateko gobernuaren konpromiso eta inplikazioa beharrezko jo zituen. Alternatiba dagoela eta borrokan jarraituko dutela ziurtatu zuten Iruñean. Iruñeko manifestazio bukaeran Uhartek gogora ekarri zuen Nafarroako Gobernuak 2005etik zuela Sakanan industriak behera eginen zuenaren berri. “Sakanako Enpresarien Elkartek ohartarazi zuen 5 urtetan ibarreko industria ehuna %30 desagertu zitekeen

la. Jakitun izanda ere, Nafarroako Gobernuak ez du ezer egin ibarrean industria ehun propio baten defentsan inbertitzeko”. Sakanan dagoen sentipena azaldu zuen: “Nafarroako Gobernuak bizkarra eman digu: ez du inbertsiorik egin, deslokalizazioetan konplize izan da eta langileen kontura urteetan aberastasuna metatu duten enpresak gobernuaren konplizitatearekin itxi dute”. Uhartek adierazi zuenez, “Sakanan UPNko jendeak ere argi du zein den irtenbidea eta esanguratsua da Altsasuko Udalean UPN abstenitu izana gaurko greba deialdiarekin bat egiteko mozioaren bozketan”.

Gaizka Uhartek.

Aurrera begira

Atzoko mobilizazioekin ez dela bidea bukatu jakinarazi zuten atzo. Gaur bertan, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur etxean egingen den batzar irekian parte hartzeko deia egin zen. Atzoko mobilizazioaren balorazioa egin eta lanean jarraitzeko ideia berriak jasoko dira. Bestalde, gogorarazi zen martxoaren 9an Iruñean enpleguaren aldeko manifestazioa deituta dutela borrokan dauden enpresa batzordeek, Sakanakoak barne. Eta UPNk bere batzarra egiten duen egunean, martxoaren 17an, Nafarroako Herri Ekimenak eta Sakanako eragileek kontzentrazioa deitu dute Iruñeko Sarasate pasealekuan.

PPSOE, ETB digitala Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

uharte arakilgo udala

ALDAKETA ARAU SUBSIDIARIOETAN HASIERAKO ONESPENA

Uharte Arakilgo udalak, 2013ko urtarrilaren 31an egin osoko bilkuran, erabaki zuen aldaketa egituratzailea hasiera batean onestea Uharte Arakilgo Arau Subsidiarioetan, S-2 sektorean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzako buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.4 eta 70.5 artikuluko bete beharrez, espedienteak jendaurrean egonen da hila bete batean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunak eskura izanen dute espedientearen udal bulegoetan, azter dezaten eta bidezkoak iruditze zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Uharte Arakilen, 2012ko otsailaren 20an.

Alkate udalburua, Javier Rodríguez Astiz

arbizuko udala

ARBIZUKO UDALAK OLATZEA HOTELA KUDEATZEKO KONKURTSOA DEITU DU

Pliegoak udalean edo udaleko web orrian egongo dira eskuragarri. Proposamenak aurkezteko azken eguna martxoaren 22a izango da.

Iruñea sakandartuta

Atzo goizeko manifestazioan 3.000 pertsonatik gora bildu ziren. Mobilizazioa berandu hasi zen, jendea bildu eta udaltzainek trafikoa bideratzen zuten bitartean. Makina bat polizia lagun manifestariak Antoniutitik abiatu eta Armada etorbideetik Merinaldeen plazarantz jo zuten, Carlos IIIa etorbidean behera egin eta Gaztelu plazatik Sarasate pasealekura iristeko, Nafarroako

Parlamentuaren parera.

Bidea *Sakana ez da ixten soluzioak orain* zioen pankarta batek zabaldu zuen. Baina izan ziren gehiago: *Arakil eta Irurtzunen 288 langabe, Sakana ez da ixten; Sakanako gazteok greban; Murrizketarik ez (Altsasuko Zelandi eta institutuak); Sakana burujabe Nafarroako Gobernurik gabe (SAL) eta Sakanako langabetuak borrokan.*

Manifestazioarekin bat egin zuten burlatar batzuek honelazioen pankarta zabaldu zuten: *Sakana en lucha, gu ere bai, lana guztientzat Nafarroa guztian.*

Bidean UPN eta PP alderdien eta Nafarroako Gobernuaren egoitzen paretik pasa ziren manifestariak. Toki horietan ozen entzun ziren manifestarien leloak eta txistuak. Ibilbidean gehien

entzun zena *Sakanan bizi eta lan* izan zen. Baina gehiago ere izan ziren: *lana banatu, ondasuna banatu; UPN kanpora; polizia gutxiago, lan gehiago; lapurrak; no hay pan para tanto txorizo* eta abar. Bukaeran, PSNren egoitza parean ere izan zen alderdi horren kontrako txistu eta oihurik. Ibilbidean barna makina bat petardo bota zituzten. Bestelako doinua

jarri zuten, ordea, Sakanatik joandako gaiteroek.

Adin guztietako sakandarrak izan ziren manifestarien artean: familia osoak haurrekin, adinduak, langabeak, kutxa eta bankuetako langileak, ostalaritza eta merkataritzako langileak... Manifestariak iruindarren babes adierazpen ugari jaso zituzten bidean zehar. Manifestazio bukaeran otamena edo auzatea izan zen Sarasate pasealekuan. Une hori eta manifestazio guztia erabili zuten deialdiaren gastuei aurre egiteko dirua eskatzeko.



Manifestazioetan hainbat pankarta ikusi ahal izan ziren.



Goian manifestariak, Armada etorbidean.



Bukaeran auzatea izan zen: txistorra eta ardoa.



Goizean 500dik gora

Goizean lau manifestazio egin ziren. Irurtzunen 120 bat pertsona bildu ziren. Etxarri Aranatz 150 bat, Guardia Zibilak urrundik zaindu zituenak. Altsasun 300 inguru izan ziren goizean, Foruzaingoaren 4 furgonetek gertutik zaindu zuen manifestazioan. Olatzagutian 40tik gora bildu ziren.

Goizeko manifestazioetan sakandarrei dei egin zitzaion: “mugitu beharrean gaude, protesta egiten, arduradunak salatzen eta alternatiba eraikitzen gure bailara itxi ez dezaten eta gure etorkizuna defendatzeko”. Bestetik, greba deialdiaren aurre lan

ketan haien lanpostuetan aritu zirenak zoriondu dituzte. Sakanako egoera larriaren aurrean ibarrean bertan bertarako konponbideak aztertu eta adostu zirela gogorarazi dute. “Azken lau urtetan protesta eta eraikitze lanak konbinatu ditugu. Nafarroako Gobernuak izan beharko lukeen ardura exijitzen eta utzikeria salatzen”.

Atzo, goizean goizetik, grebaren berri ematen informazio pikea Altsasuko industrialdeetan ibili zen. Foruzaingoa gertu izan zuten uneoro eta tentsio uneren bat ere izan zen.



Larunbatean Igartex okupatu zuten gazteek, sinbolikoki.

Gazte zukgua grebarekin bat

Gazte zukguak ibarreko gazteak atzoko grebarekin bat egitera deitu zituzten. “Sakanarako lan ildoak garatzen hasi beharra dugu, gure bizi eredia sortuz, Euskal Herri independente sozialista eta feminista bidean”. Gazteen iritziz “sistema kapitalistak krisia eragin du, sistemaren krisia, bizi eredu hau ez da ez jasagarria”. Sakana bereziki kolpatua izan dela nabarmendu zuten. UPNk Sakana hustunahi duela salatu zuten eta gobernuko

alderdiaren jokabidea hezkuntzan eta lan arloan kritikatu zuten.

Igartex okupatu

Larunbat eguerdian, Gazte zukguako 20 kidek Igartex enpresa okupatu zuten sinbolikoki. Arratsaldean kontzentrazioa eta poteoa egin zituzten, besteak beste, haien egoeraren berri emateko. Bezperan, 50 bat gazte manifestazioa egin zuten, haien egoera salatuz eta grebara dei eginez.

O 28: Greba orokorra Sakanan



Garazi Urrestarazu.

“Gure etxeko lanak egiten segituko dugu, inor itxoin gabe”

Baina Nafarroako Gobernuak toki-administrazioekin “kolaborazio marko iraunkorrak eraikitzea kondenatuta dago, helburu komun bat izan behar genukeelako: nafarren ongizatea”

Garazi Urrestarazu Zubizarretak, Altsasuko alkateak, atzoko Iruñeko manifestazioaren adierazpenak dira. Urrestarazuk azaldu zuen, atzoko greba orokorraren ondoren lanean jarraituko dutela eta Sakana ez dutela ixten utziko. Nafarroako Gobernuaren murrizketa

eta utzikeria politika salatu eta elkarlanerako deia luzatu zion.

Altsasuko alkateak gogoratu zuen azken lau urtetan Sakana “itxieren dinamikan” murgildu zela, “inolako kupidarik gabe baztertu gintuztela”. Egoerari aurre egiteko, 2011n krisi mahaiaik “Sakanatik Sakanarako dinamika bati ekitea erabaki zuen”.

Emaizta, zero

Urrestarazuk gogora ekarri zuen

mahai hartan adostuzirela: Garapenerako Plan Estrategikoa egitea; Sakanako Garapen Agentzia sortzea; Sakana Premiazko Berrindustrializazio Eskualde izendatzeko eskaera Nafarroako Gobernuari egitea; Gobernuak Mank-ekin eta garapen agentziarekin lankidetzara iraunkorra bermatzea markatutako helburu sozioekonomikoak betetzen laguntzeko; Gobernuaren joan den urteko aurrekontuetan diru-sail bat

bideratzea ibarrean adostutako ekimenak finkatzeko eta gizartearen dinamizazioa bulkatzea.

Nafarroako Gobernuak kideek “bulegoetako ateak zabaldu dizkigute baina haize korrante bat besterik ez bagina bezala tratatu gaituztela sentitzen gara”. Urrestarazuk ziurtatu zuenez, “entzun gaituzte, baina praktikan lan egiteko momentuan ez da horrela izan. Sakana bezalako eskualde oso bat jokoz kanpouzteko lotsarikez dute”.

Erantzun zabala

Sakana ez da ixten! UPN gure etorkizuna lapurtzen! Sakanan bizi eta lan leloa zuen atzo deitutako greba orokorrak. Deitzaileendako “arrakastatsua” izan zen erantzuna. “Gizarte erakundeen babes handiarekin deitu zen eta aurretik egin dako beste greba batzuen pareko izan da”. Sakandarren erantzuna “zabala” izan da. “Genituen helburuak bete dira: Sakanako aldarrikapenak gai zentral bihurtzea. UPNk sustatu dituen politiken adibide dela uste dugulako”, azaldu zuen LABeko Gaizka Uhartek.

Deitzaileek emandako datuen arabera Lakuntzan, Etxarri Aranzten eta Altsasun grebak %80ko jarraipenagainditu zuten. Grebaren erantzuna partziala izan zen Irurtzun eta Olatzagutian. Industriari dagokionez, ELAk eta UGTk deialdiarekin bat ez egitean jende gehiago batzeak zaildu zuen, antolatzaileen iritziz. %70 itxita egon zen Lakuntzan, Etxarri Aranzten eta Altsasun. Aceros Moldeados, Gue-

rra Hermanos, Lacunza Calor Group eta Cerámicas Utzubar izan ziren itxi zutenetako batzuk. Sundeguiko gehiengo sindikalak deialdiarekin bat egin zuen, nahiz eta gero enplegu erregulazio espedienteak ezarri zieten. Irurtzunen eta Olatzagutian jarraipena mugatua izan da. Urdiaingo Magotteauxen %40ko jarraipena izan zuen.

Ibarreko merkataritza arloa itxita gelditu zen, Altsasuko Netto ezik. Irakaskuntzan, Nafarroako Gobernuaren datuen arabera %61,35ekoa izan zen jarraipena (azken bi grebetakoa baino gehiago). DBHko ikasleen %95ek grebarekin bat egin zuten. Udal gutxiak %100ean gelditu zutela azaldu zuten deitzaileek. Hondakinak biltzeko zerbitzua ere ez zen izan.

Gizarte zerbitzuetan, osasun arloan eta garraioan gutxieneko zerbitzuak izan ziren. Greba deitzaileek salatu zuten herenegun jaso zituzten gutxieneko zerbitzuak zehazten zuten gobernuaren erabakia.



Irurtzuno elkarretaratzea.



Bilkura Etxarriko plazan.



Altsasun, elur tartean. Foruzaingoak gertu zaindu zuen bilkura.



Olatzin elkarretaratzea eta manifestazioa egin zituzten.

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

13

SARE SOZIALA SARE SOZIALA SARE SOZIALA

FINALAURREKOA
Martxoak 3:
ETXARRI ARANATZ
17.30
Kultur Etxea

Xabier Silveira
Eneko Lazkoz
Jon Barberena

Eneko Fernandez
Ander Fuentes “Itturri”
Josu Sanjurjo

guaixe.net

Antolatzailea:
Loguntzailea:

ezkontzak

Tximak baino gehiago...



EMAKUMEAK

2013an orrazkerak koloreak bezainbeste ditugula esan genezake, emaztegai bakoitzak berea eta besteengandik ezberdina den bat aukeratuko baitu. Eta arazorik ez dago, mota ezberdinetakoak baititugu, haien soineko ezberdinekin konbinatzeko.

Horietako bat erromantizismo inuzente ukitu bat emango diona, ilea aske eta izur batzuekin egina, egokia soineko erromantiko batentzat.

Aurtengo orrazkera ilea motza eta kiribildua izan daiteke. Orrazkera honek ile finari gorputza emango lioke eta trentza eder bat jarri nahi izanez gero, hain berezia den egun honetarako egingarria litzateke. Udaberri-udako ezkontzetarako moda-modandaude, erosoak, lagungarriak eta trentza bat egiteko hain luzea ez izanez gero extentsioak erabil daitezke.

Bestetik, emaztegaiendako ile motza eta ondulatuak abantaila bat badu, bolumen itxura handia duela eta

mugimendua ere bai, egun horretan sofistikazio apur bat lortuz.

GIZONAK

2013rak gizonezkoen beren izaerarekin bat datorren orrazkera aholkatuko diegu, eroso eta dotore egon daitezten. Senargaiak ezkontza egunean bere burua ongi ikusi behar du eta horregatik bere estilarengana jo behar du, bere orrazkera zaindu behar duelako. Jakina da gizonezkoen orrazkerak aurre-

tiko lan handia ez duela eskatzen baina komeni da egun horretarako ahalik eta hobekien egoteko, alde aurretik frogaezberdinak egitea. Alde batetik, aukera ezberdinak egon daitezkelako eta bestetik, egun horretan eroso egoteko bakoitzak bere burua horrela ikustera ohitu egin behar duelako. Komeni da hiru aste lehenago frog horiek egiten hastea, metxak eta tinteak tartean badaude.

Argi dago senargaiarendako ile

motza egokiena izango dela baina melena dutenak ere badira eta hauek ere beste aukera bat izan daitezke. Gela eta argizari krema apur batekin egindako krestak edo melena apur bat duten orrazkerak izan daitezke egokienak.

Ile kiribildua edo ondulatu izanez gero hauek apenas nabaritu daitezten ilea moztu daiteke eta horrela orrazteko hautua eginez gero, ongi garbituta eta zainduta utz daiteke ahalik eta modu naturalenean ikus dadin.

erabileraren antzeko guzua
kontsultagunea
estetikagunea
gimnasioa

TXANDA ESKATU
948 460 993 / 661 541 431
Burundabide 14 • Etxarri Aranatz
www.xalok.es

Ezkontzak eta jaunartzeak

1go packa: 55 € Argizari depilazio osoa Manikura iraunkorra	3. packa: 90 € Argizari depilazio osoa Manikura iraunkorra Aurpegi garbiketa	5. packa: 120 € Argizari depilazio osoa Manikura iraunkorra Aurpegi garbiketa Azukre-kanaberaz beltzarantzea Pedikura esmalte normalarekin.
2. packa: 80 € Argizari depilazio osoa Manikura iraunkorra Azukre-kanaberaz beltzarantzea	4. packa: 90 € Argizari depilazio osoa Manikura iraunkorra Pedikura iraunkorra	

• DIETETIKA ETA NUTRIZIOA
Ana Carmen Huarte Lacunza: elkargokide-zenbakia NA00154

• KIROL MEDIKUA
Jacobo Vazquez: elkargokide-zenbakia 4830

• FISIOTERAPIA - OSTEOPATIA
Amaia Mina: elkargokide-zenbakia 238

Maitane Ezkurdia: elkargokide-zenbakia 339 (peibis-zoru espezialitatearekin).

• ESTETIKA:

Zure ezkontza egunerako ile orrazkera perfektua

San Juan 54 Altsasu
948 467 074
estilistanuevaimagen@hotmail.com

maria luisa zufiaurre

Isidoro Melero • 948 562 396
Altsasu

Haurren arropa eta lentzeria

TxikiTxo

Ferial, 2 ALTSASU
txikiTxo1@terra.es • 948 46 73 08

Moda joerak, mihiseak, apainketak eta erreportajeak

Moda joera berriei kasu handirik egiten ez badiezu orain da une egokia horretarako, ez galdu ezkontza baterako gonbitea egin izana eta murgildu 2013 urteak udaberri-udarako aurkezten dizkigun joeretan, orain duzu aukera festa giroko jantzi formal bat Sakanan eros- teko.

Jantziekin batera badakigu osagarriak ere oso kontuan hartzekoak izaten direla egun honetarako, hala nola barruko arropa zuria nola mihisea. Kanpotik dotore jaztea bezain garrantzitsua baita barrutik ere egitea. Ezkongaiak ezkontzeko tokia- ren eta otordurako lekua- ren apainketaz ere arduratzen ohi dira eta Sakanan lore- gintzan adituak ez zaiz- kigu falta.

Eta eguna borobil- tzeko une kuttun horiek guztiak bil- duko dituen argaz- ki erreportaje txu- kun bat egiteko aukera ere izango dugu.



Ohorezko dantza. Bertakoa?

Ezkontzaren egunean xehetasun asko izaten dituzte ezkon- gaiek. Baina baita, senide eta lagunek. Gonbidapenak, loreak, sor- presak... Ezkontza askotan falta ez dena da ezkonberriei egindako oho- rezko dantza: Aurrekua. Txistula- ria lagun dantzari batek edo dan- tzari bikote batek ezkonberriei erre- berentzia egiten die.

Aurrekuak, berez, zortziko baten erritmoa du. Gaur egun izen hori badu ere, Aurrekua, berez, mutil- dantza edo soka-dantza da. Eta horietatik baditugu Sakanan. Iha- bartik hasi eta Olatzagutia bitarte- an zortzikoak dantzatzen dira fes- ta egunetan (Etxarri Aranatzeko Dan- tzaki izena du). Dantza serio eta eleganteak dira guztiak ere.

Orduan, zergatik ez erabili berta- ko dantzak Aurrekuaren orde? Euskal kulturako elementu ugari- ri beste erabilera eta sinbolismoa eman zaion eran, gauza bera egin daiteke ibarreko zortzikoekin. Estatiko bihurtzeko moldaketa gutxi batzuk egin eta bertako oho- rezko dantzak genituzke. Herrian herrikoa, gainera. Horrek zortzi- koen eta dantzakiaren melodien transmisioa ziurtatuko luke, bai- ta dantza berarena ere.

Eta esperientziak badaude. 2008ko abenduan bikote etxarriar bati Dan-



tzakia dantzatu zioten udaletxeko estalopean. Eta 1999an Javier Bus- tamantek Joseba Salegiri Altsasu-

ko Zortzikoa dantzatu zion Donos- tian, Jone sube al cielo filma mus- tu zutenean.

Zure momentu berezietarako Foto Izor

Rale Txiki zt. g. telf.: 948 467 151

Altsasu

XIK AGENSIA

Ezkontza erreportajeak

948 469 023 · Iortia plaza, 1 · Altsasu

MENDILORE LORATEGIA

Zure ezkontzarako behar duzun guztia!!!

647 247 205
2. Poligonoa 63. partzela,
Soaberritas · BAKAIKU
www.mendilore.com
www.mendilore.es

Goiko LOREDENDA
948 564 260 · 610 098 595
Gatzia Ximenez · Altsasu

Ezkontzako loreak gurekin egitean, autoaren apainketa opari

Betiko lore apainketatik diseinu berrietarainoko eskeintza

>> **Irurtzun**

Hogeigarrenez, emakumeari buruzko jardunaldiak

Bihar hasi eta hilabete akabera bitartean emakumeari buruzko jardunaldiak izanen dira Irurtzunen. Emakume irurtzundarrek protagonista izanen dituzten erakusketa, antzezlan eta afariez gain, aldarrikapenerako tokia utziko du egitarau zabalak. Egitarauan bertan gogoetarako esaldia dugu: Hauskortasunaren indarra: eusten zigula uste genuen guztiak eusten ez digunean, hortxe, agertzen da gure benetako sendotasuna. Irurtzongo Emakume Taldeak, Kultur kontseiluaren eta Irurtzongo Udalaren laguntzaz antolatu du guztia.



Martxoan barna emakumearen inguruan zer landu badago Irurtzunen.

Egitaraua

>> **Martxoak 2, larunbata**
20:00etan El miedo que me habita antzezlan kultur etxean.

>> **Martxoak 3, igandea**
18:00etan Emakumeari buruzko film laburren proiektzioa eta txokolate jatea. Urko Mauditek aurkeztuta, Pikuxar euskal txokoa.

>> **Martxoak 4, astelehena**
19:00etan Irurtzongo plazan, hitzordua Iruñeko Astelehen Lilak kontzentrazioa joateko. 20:00etan Iruñean.

>> **Martxoak 9, larunbata**
16:30ean Enriqueciendo la sexualidad con todos nuestros sentidos kafe-solasaldia. Idoia Aragon (psikologoa eta sexologoa). Kultur Etxea.

21:30ean afaria Iratxo elkartearen. Kultur Etxean, Iratxo eta Pikuxarren eman behar da izena eta abizena, asteartera arte.

>> **Martxoak 13, asteazkena**
18:00etan Irurtzongo plazatik irtengo gara Iruñera, zinemara.

>> **Martxoak 15, 16 eta 17**
Sueño de una noche de verano antzezlan. Irurtzongo Antzerki Tailerra. Kultur Etxean

>> **Martxoak 22, ostirala**
19:30ean Mondragón 1936: Mujer, guerra y represión dokumentala. Aurkezlea: Julia Monge. Kultur Etxean.

Martxoaren 8tik 31ra Ura Sakanan pintura erakusketa, Irurtzongo Pintura Ikasgelako Emakumeen Taldearen lanak. Tahonan eta Pikuxarren

>> **Olatzagutia**

Pakistangoen berri emanez dator Emakumearen Eguna

Heldu den ostirala Emakumearen nazioarteko eguna dela eta, Olatzagutiko Udalak programazio berezia prestatu du. Egitaraua heldu den asteazkenean hitzaldi batekin abiatuko da. Baltistan fundazioko Sarai Martinek Pakistango emakumeen egoeraren berri emanen du. Kultur etxean izanen da, 19:00etan.

Pakistango goi mendietako Baltistan eskualdeko Hushe ibarreko komunitateen garapenaren alde lan egiten du fundazioak. Bertako biztanleak haien garapenaren agente aktibo bihurtzeko lan egiten du, garapen jasagarria eta ingurume-

na errespetatzen duena sustatuz. Fundazioaren jardun nagusia emakumezkoen zuzenduta dago. Esaterako, haiei zuzendutako prestakuntza zentroak martxan daude 2007tik eta fundazioak garatzen dituen egitasmo guztietan genero ikuspegia txertatzen da. Bestetik, osasun arloan hobekuntzak lortzeko lan egiten du fundazioa, adibidez, erditzeetan ama eta ume asko hiltzen direlako.

Gehiago

Emakumeen nazioarteko egunean Olatzagutian kontzentrazioa egingen da San Migel plazan. Eta



Emakumeak Pakistanen.

hurrengo egunean, kultur etxean *Cruzadas cotidianas* antzezlan

ikusteko aukera izanen da. Programazioa ixteko, larunbatean, afa-

ria izanen da. Izen-ematea ohiko tokietan egin.

SAKANA

Langabeak gobernuarekin enplegu proposamenekin kritiko

Nafarroako Parlamentuan langabeziari buruzko pleno monografikoa egin zuten pasa den astean. Iruñerriko eta Sakanako langabetuen kolektiboek parlamentu barruan eta kanpoan plazaratu zituzten haien aldarrikapenak. Balorazioa egiterakoan, lehenik, Lourdes Goikoetxea, Enplegu eta Ekonomia kontseilariaren interbentzioa kritikatu dute: “betiko



Parlamentuan protesta egin zuten langabetuek.

errezeta huts eta antzuen aldeko apustua egiten segitzen du: AHT, Nafarroako Ubidea, gastuaren kontrola... hau da, enpleguaren suntsiketa gehiago”. Langabetuek, ordea, lanaren banaketaren aldeko apustua aldarrikatzen dute. Eta enplegua sortzeko ondoko neurriak proposatzen dituzte besteak beste: “aparteko orduak debekatzeta, lan-orduen murrizketa bai arlo publikoan zein pribatuan ere... eta erreleboko kontratuak areagotzea”.

Bigarrenik salatu dute, prentsaren bidez jakin dutela haietako batzuk parlamentuko sarrera debekatuta dutela, plenoa burutzen arizen bitartean protesta egi-teagatik. “Goikoetxea andrearen interbentzio tamalgarriaren bukeran altxatu eta lanaren eta aberastasunaren banaketaren aldeko aldarrikapenak bota genituenean ezerosoak sentitu zirela diote! Nafarroako Gobernutik alde egin behar dutenak beraiek dira, haiek sortutako krisi baten aurrean agertzen duten ezintasunarengatik” gaineratu dute.

Neguko argazki lehiaketa

>> **Saria:** RAMOS dendak eskainitako MP3 bat

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen dira. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatoa izatea. Berririk Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendarean erreproduzitzen eta jakina-

razten uzten dituzte Berririk Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira Berririk Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixenegukoa alipamena egin. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astelehen. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

>> Altsasu

Azken maukak IV. Stock Azokan

Altsasuko Dendarien Elkarateak antolatuta, larunbatean eta igandean egingen da Burunda pilotalekuan. Aurtengo berrikuntza da asteburuan Altsasun Pintxo Potea egiteko aukera izanen dela

Altsasuko Dendarien Elkarateak antolatuta, asteburuan burutuko da IV. Stock Azoka, Altsasuko Burunda Pilotalekuan, Altsasuko Udalaren laguntzarekin. Larunbatean eta domekan mota guztietako maukak erosteko aukera izango dugu, goizez eta arratsalde, Altsasuko Dendarien Elkarateko kide diren denda eta komertzioen eskutik.

Bi urtetik behin egiten da stock azoka. Denboraldian saldu gabe geratu diren produktuei eta bil-



Aurreko Stock Azokako edizioa.

tegian dauden produktuei irten-bidea emateko aukera ematen die azokak dendariei, eta primerako produktuak prezio baxuan eros-

teko aukera, aldiz, erosleei. Kri-siaren eragina horrenbeste nabaritzen dugun honetan, aukera ona eskainiko digu asteburuan

Altsasuko Dendarien Elkarateak, arropak, zapatak, etxerako osagarriak eta beste prezio ezin hobe-an erosi ahal izateko aukera. Denboraldiko azken maukak, beraz, asteburuan egin ahal izango dira Altsasun.

Eguna borobiltzeko, pintxo potea

Erosketak egin ondoren zerbait hartzera joatea aukera ona da. Horrela, eta stock azoka aberaste-ko, Altsasuko zenbait tabernek ekimenarekin bat egin dute eta Pintxo Potea eskainiko dute. Alboan aipatutako tabernetara pote bat hartzera joaten direnei moka-dutxoren bat eskainiko zaie, opari. Beraz, astebururako plan ona eskaintzen du Altsasuk: stock azoka eta pintxo potea.

Altsasuko IV. Stock Azoka

Burunda pilotalekuan. Larunbatean, 10:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 21:00etara. Igandean, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

Pintxo Potea

Xurru Altsasuko Tabernen Elkar-terko tabernetan: Gernika, Lurrazpi, Arkangoa, Gautxori, Urtzi, Xume eta Koxka. Eta ondoko tabernetan ere: Biltoki, Kukua, Lezea, Goya, Las Vegas, Kaixo, Fortxo, Espejo eta Irubide.

>> Arakil / Irurtzun



Iruñea iparraldean institutu berri bat egitea eskatzen ari dira.

Institutuaren eskaera Parlamentuko bilkuran

Biurdana institutua gaur egun masifikatuta dago eta aurreikus-penek ikasle gehiago joanen dire-la adierazten dute. Iruñea iparraldean institutu berri bateraikitzea eskatzen ari da Iruñeko Iparraldeko Institutu Batzordea (Biurdana, Sanduzelai, Patxi Larrainzar, Orkoien eta Irurtzongo Guraso Elkartea alegia).

Gaur, Nafarroako Parlamen-tuaren bilkuran, Iribas kontseila-riak institutuaz aritu beharko du. Parlamentuko Hezkuntza Batzor-deak institutua egiteko eskatu zuen. Kontseilariak erabaki hori betetzeko zein urrats eman dituen argitu beharko du gaur. NaBaiko Nekane Perez Irazabalek egin du eskaera.

>> Etxarren



Feliciano eta Alberto nagusitu zen Etxarrengo mus txapelketan.

Elkaratea muslariak hartuta

Larunbatean Etxarrengo Kon-tejuaren elkartean mus txapel-keta azkarra jokatu zen. Karta lehia hasi aurretik, afaria izan zen eta ondoren hasi zen txapel-

keta. 16 bikote neurtu ziren, ordu txikitaraino eta giro ederrean. Finalean Feliciano-Alberto biko-teak Etxeberria anaiei irabazi zien.



Gixane estetika zentruak %100ean produktu naturalekin egiten du lan.

Barrutik zaintzen zaitu eta kanpotik nabaritzen da.

948 563 029 • Zelai kalea 27, 2. esk. • ALTSASU

PARABENIK GABEKO PRODUKTUAK:

GOLDEN PIRAMIDE • AROMS NATUR • KARICIA

- **MSdetox (Depuratzeko makina)**
- **Larruazaleko lifting japoniarra**
- **Masaje ezberdinak**
- **Betileen tinte eta permanentea**
- **Laser, argizari, diodo eta depilazio elektrikoa**
- **Solarium eta azukre kaña**
- **Makillajea**
- **Oinaren estetika**
- **Azazkalen makillajea**
- **Produktuen salmenta**
- **Garbiketak**
- **Presoterapia**

GORPUTZA BIRMOLDATZEA (sabelalde eta kartutxerak)

Esentzi olioekin/ mikronizatu eta MSDETOX makinarekin

- Saioa 26€
- 6 saio 145€
- Denbora: ordu bat (gutxi gorabehera)

SAUNA-MANTA esentzi olioekin + MSDETOX

- Saioa 15€
- 6 saiotako bonoa 87€
- Denbora: 30 min.



FISIOTERAPIA



Iosune Marauri Fisioterapeuta

Postura zuzenketak Masajeak eta taldeak

638 484 780

osunemarauri@gmail.com

www.reordenaciondelapostura.com

>> Olatzagutia

Oinezkoendako 3 plaza eta 2 kale

Eguraldiak laguntzen duenean, Kale kaleko lanak despeditu ondoren, Olatzagutiko Udalak oinezkoendako izendatuko ditu Orreaga kalea eta Vicente Argomaniz plaza. Horren aldamenean dauden Sarasate eta San Miguel plazekin oinezkoendako eremu zabal bat

sortuko da herri gunean, eta oinezkoek kioskotik ia kiroldegiraino, kultur etxetik pasaz, lasai joateko aukera izanen dute.

Udalak aparkatzea eragozteko seinaleak eta bestelakoak jarriko ditu. Gurutze Rodríguez alkateak jakinarazi digunez, eremu horre-

tan, soilik, auzokideen autoak ibiliko dira. Udala haiekin harremanetan jarri da, proposamenak izanez gero, helarazteko.

Vicente Argomaniz plazan eta Kale kalean sareak, zola eta argiteria berritzeko lanak egiten ari dira.



Vicente Argomaniz plazako lanak.

>> Uharte Arakil

Pausoka haur eskola gobernuaren eskutan

Udalak inbertsioa egin ondoren ikasturte berrian Gobernuak kudeatuko du

Ate irekiak martxoaren 4an, astelehenean, 16:00etatik 17:00etara Uharte Arakilgo eskolan

Uharte Arakilgo eskolan heldu den urtean 0-3 zikloa izanen da. Gaur egun ere badago, baina udal zerbitzua da. Uharte Arakilgo Udalak eta errentaren arabera gurasoek ordaintzen duten kuotekin aurrera egin du orain arte Pausoka haur eskolak. Zerbitzuak udalari eskatzen zion inbertsioa ikusita eta departamentuaren esku egonda gurasoen kuota murriztuko zela ikusita, Pausoka haur eskola haren esku uztea erabaki zuten Uharte Arakilen.

Ainara Aiestaran alkate-ordeak esan digunez, “publiko izateak haur eskolaren proiektuari garrantzia ematen dio”. Aiestara-



Haurrak jolasten.

nek beste onura bat ere ikusten dio 0-3 zikloari: “eskolan euskarari bultzada emateko balioko du. Aurten, aurreneko aldiz, Uharteko eskola aurre-matrikulatu diren haur guztiak D ereduan egin dute, bat bera ere ez A ereduan”.

Baina horretarako udalak espazioa haureskolen legedira egokitze-lanak egin behar izan ditu. Aiestaranek azaldu digunez, haurrendako komuna jarri, oztopo arkitektonikoak kendu, patioa egokitu eta halakoetan eskatzen diren

segurtasun neurri guztiak betetze-lanak egin dira lan horiek. Guztira 70.000 euroko aurrekontua izandute.

Matrikulazioa

Heldu den ikasturtetik aurrera Hezkuntza Departamentuaren ardura izanen da Uharteko 0-3 zikloa. Baina dagoeneko hasi da departamentua erabakiak hartzen. “Ilbeldetik gurasoek departamentuak ezarritako kuotak ordaintzen ari dira”. Haur eskolako aurre-matrikulazio epea ostiralean hasi eta martxoaren 15era arte zabalik egonen da. “Arakileta Arruazu bitarteko herritarrei zerbitzua eman nahi genieke” azaldu digu Aiestaranek. Ikasturte berriko ordutegiari dagokionez, 8:00etatik 16:00etara izanen da. “Baina eskaeraren arabera, ordu erdi lehenago has liteke”, argitu digu alkate ordeak.

Zortzi



Gaur egun 8 haur eta 2 hezitzaile daude. Haietatik 5 ikasturte berrian ez dira izanen 3 urte beteak izanen dituztelako. Gelditzen diren 3 haurrei momentuz beste 3 batuko zaizkie.

>> Ziordia

Argiteri publikoa berritu eta %85 aurreztu

Bonbilak LED sistemagatik ordezkatu ditu udalak

Ziordiko Udalak 120.000 euroko inbertsioa egin du argiteri publikoa berritzeko. Energia aurrezteko helburuz egindako lanek Nafarroako Gobernuak %40ko dirulaguntza izan du. Aldaketa aurretik urtero 78.822 Kw kontsumitzen zuten Ziordiko argiteri sistemak. Gauregungoarekin, berri-

15.680 Kw besterik ez.

Alde hori, jakina, fakturan ere nabari da. Ziordiko Udalak kaleak argizatzean urtean 11.200 euro gastatzetik 1.725 euro ordaintzera pasako da. Gainera, kontratatutako argindar potentzia %46,1 jaistean faktura ere murriztu da.

Argiteria publiko guztia LED sistemara aldatu duen aurreneko

herria da Ziordia. Argiak erregulatu egin dituzte. Piztuta dauden denboraren heren batean indar guztiarekin argizatzen dute eta denboraren beste bi herenetan potentziaren erdira argizatzen dute. Jesus Arrese alkateak azaldu digunez, “potentzia gutxiagorekin argizatze hobea lortzen dugu eta argi-kutsadura murrizten dugu”.



Ziordiko ikuspegia.

Birziklatzeko denetarako aukera

Ziordiko Udalak, NaBairen aldeko eta Bilduren kontrako botoekin, erabaki zuen materia organikoa jasotzeko herrian 5. edukiontzia jartzea. Ziordiko Udalaren asmoa da 2020. urterako Ziordiko biohondakinen erdia birziklatzea eta %10eko errefusa besterik ez sortzea. Hala jakinarazi zion udalak Sakanako Mankomunitateari. Alkateak jakinarazi digunez, Mank-ek erabakiari helegitea aurkeztu dio. Bi



Edukiontzia Ziordian.

administrazioetako ordezkariak duela hiru aste bildu ziren eta akordioa lortzeko aukerak dardardela uste du alkateak.

Bilera hartan Ziordian etorkizunean edukiontzia kokatzeko egon zitezkeen puntuak aipatu ziren, 9 gune. “Hiruzpalau puntu kenduko dira, baina edukiontzia egonen dira. Ziordiar gehienak horinahi baitute”. Alkatearen esanetan garrantzitsua da Mank-ek errespetatzea Ziordian edukion-

tziak izateko erabakia. Bere ustez edukiontzia izateak ziurtatuko du ohiturak mantentzea, edukiontzien pribazitatea eta ordutegi askatasuna bermatzen dutelako.

Alkateak azaldu duenez, auzo konposta egiteko aukera izanen dute ziordiarrek. Sei edo zazpi gune prestatuko dira, prestatutako tokietan. Etxean konposta egiteko aukera ere badute. “Eta atez atekoa egin nahi duenak horretarako aukera ere izanen du”.

» Olatzagutia

Buruhandigintza



Buruhandi tailerra egin zenekoa.

tailerra, bi ordu eta erdi saio bakoitzean. Izena eman nahi duenak ludotekatik pasa beharko du edo 699 635 187 telefonora hots egin. Udalludotekako bazkideek dohai-nik dute izen-ematea; ez direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Ikastaroa egin dadin gutxienez zazpi eman behar dute izena.

Bilera

Informaziogehiagomateko eta aurreko lanen azalpenak emateko martxoaren 7an, ostegunean, 18:30ean ludotekan bilera egingo da.

Akelarre udalludotekak buruhandiak egiteko tailerra prestatu du. Helduei zuzendutako jarduerak da, baina neska-mutilek haien laguntzaile izanzen dira. Ikastaroa apirilaren 13an hasi eta garagarilaren 8an despedituko da. 9 larunbat goizetarako dago iragarrita

SAKANA

Errausketa eta osasunaz, hitzaldia

Larunbatean, 17:00etan, Arbizuko kiroldegian

Hondakinen errausketa porlandegietan: pertsonen osasunean duen eragina. Olatziko Portland-en kasua izenburuko hitzaldia hartuko du bihar Arbizuko kiroldegiak. Hiru Mugak Batera plataformak (3MB) antolatu du eta bi hizlari ariko dira. Batetik, Peio Lozano EHU-ko Geografia, Aurre-historia eta Arkeologia Saileko Geografia Fisikoan doktore dena eta, bestetik, Mario Fdez Lopez de Ahumada, medikua eta Osaldeko kidea.

Hizlariak errausketak naturan eta osasunean dituen ondo-



Aurreko hitzaldi bat.

Manifestazioa

3MBk martxoaren 16rako, larunbata, manifestazioa deitu du, Altsasun. 18:00etan aterako da Nettoparetik. Mobilizazio horrekin, plataformak, Nafarroako Gobernuak porlandegiarendako onartutako Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorialaren "inposizioa eta zentzugabekeria" salatu nahi ditu. Aldi berean, "beste hondakin kudeaketa eredu batzuk (badiarelako) bilatzeko, eta aurkitzeko" eskatuko du.

rio kaltegarriak azalduko dituzte. Aldi berean, bildutakoen zantzak ere argituko dituzte. 3MBk sakandarrak hitzaldira joatera gonbidatu ditu.

Enkartatzea → 340€

Diseinatzea + inprimatzea + enkartatzea → 455€

eskaintza ez metagarria

Zure eskuorria

Guaixeren barruan

Sakanako 4.500 etxetan

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

SAKANA

Gaixoak zaintzen dituen klinikako lagunen elkarte

Urte luze bateko ibilbidearen ondoren, etxean, Sakanan, Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak bere burua aurkeztu zuen, igandean. Estatuan arreta psikiatrikoan erreferentea den klinikak aurrera egin dezan laguntzeko elkarte dira hainbat pertsona. Elkarteko presidentek, Patxi Goikoetxeak, ekitaldian gizartearen parte hartzea eskatu zuen, eta elkarteko bazkide eginez, klinikari laguntzea eskatu zuen. Nafarroako Kutxa fundazioaren *Zuk aukeratu*, zuk erabaki programaren bidez ere laguntza emateko aukera gogorarazi zuen.

Klinikaren martxaren berri eman zuen Jose Joaquín Roldán, Pantxo, medikuak. Gaitzari aurre egiteko hainbat diziplinetatik lan egiten dutela. Horrela, gaixoak hobetu eta, nahiz eta mugekin, familian bizitzeko gaitzen dituztela azaldu zuen.



Igandean aurkeztu zen Josefina Arregi Klinikako Lagunen Elkarte Altsasun. Jendetza bildu zen lortian.

Gonbidatuak

Enrique Villarreal, El Drogasek, bere amarekin zentroan bizi izan

zuen aekarri zuen gogora: diagnostika okertzearen ondoren sortu zitzaion etsipena, sortutako kon-

trako sentipenak, galtzeko beldurra... Musikariak Erkuengo Ama abesbatzarekin batera *Te quiero*

abestia kantatu zuen.

Guillermok, Nagore kazetariarekin batera, eta elkarteko beste 20 bat pertsonak 8km-ko ibilbidea egin zuten. *La memoria es el camino* bere egitasmoko 176. etapa izan zen. Haren bidez Alzheimerrearendako estatupolitika aldarrikatzen ari da.

Bestalde, 10 urtez Gipuzkoako elkartearen buru izan den eta berriki estatuko alzheimer eta dementziak dituzten pertsonen elkartearen konfederazioko zuzendari izendatu berri den Koldo Aulestiak, bere esperientziaren lekukotasuna eman zuen. Konfederazioak 304 elkarte biltzen dituela azaldu zuen.

Logotipoa

Raquel Guerrerok, klinikako okupazio-terapeutak, elkartearen logotipoa aurkeztu zuen. Klinikako gaixoei egin dute irudia eta prezuesaren berri azaldu zuen.

Lingua Navajorum

Martxoaren 14an, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Korrika heldu da!

Hasi motorra berotzen antzerki barregarri batekin!

6€

(Korrika laguntzaileek 5€ eta 16 urteko beharokoek 3€)

Mank

sakana



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Gorka Larrea Ondarra

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.

Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane

Arbizu-Bakaiku



Mercedes Iturriza Zelaia

III. urteurrena

Zu sortu zinen
enbor beretik
sortuko gara

Zure familia


Bakaiku

Gorka Larrea Ondarra

I. urteurrena

Eta negarrez ari naiz... eta zer da ba negarra,
sentimenduen azaleratzea baino?
Barruan duguna kanporatzea baino?
Barrua hustu, zuri tokia egiteko.
Betirako gure bihotzean.

Zure lagunak



Koldo Martinez Muruzabal

“decidí hacerme yo la maleta para
poder vivir. Hoy lloré, se me habrá
metido un poco de arena, eso no
es para mí”

(Extremoduro)

Olaztiko lagunak

Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.net



guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKARIA

Neska euskalduna lan bila. Asteazken goi-
zetan edo aste bukaetan. Izaskun 653- 99 80 35.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Altsasun.

2. eskuko eta ia-ia era-
bili gabe. Altsasun jarrita. Prezio ona. Telefonoa:
618- 19 07 24.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Txupa marroia eta zilarrezko eskumuturreko bat. Otsailaren 9an Altsasun galdu nituen.
Mesedez, opatzen badituzu 696- 23 74 16 telefo-
nora hots egin. Mila esker!!

Ikastaroak

AESei ikastaro hauek antolatuta ditu.
“Komunikazio eraginkorra bezerekin” martxo-
aren 11tik 21era, 20 ordu; “Enpreko ingelera”,

apirilaren 2tik maiatzaren 23ra; “Project
Management”, apirilaren 2etik maiatzaren 3ra,
20 ordu; “Kosteen analisia erabakiak hartzeko
laguntza gisa”, apirilaren 8tik 22ra; “Blog-ak eta
web orriak sortzeko enpresei begira”, apirilaren
8tik maiatzaren 13ra.” Erabakiak hartzeko kosteen
azterketa”, apirilaren 8tik 24ra, 20 ordu.

Jaiotzak egiteko ikastaroa. Sakanako belenza-
leen elkarteak antolatuta du martxoaren. 40 ordu,
ostiralean 17:00etatik 20:00etara eta larunba-
tetan 10:00etatik 13:00etara, elkartean
Olaztiko egoitzan. Izena emateko hots egin: 606-
22 76 12, 616- 34 75 11 edo 948- 56 31 94.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu.
“Planoen interpretazioa” martxoaren 4tik 21ra;
“Testu-tratamendua” martxoaren 9tik apiribi-
laren 20ra; “Lehengaien manipulazioa” apiribi-
laren 2tik 29ra; “Eskorga jasotzailea gidatzeko” apiri-
bilaren 6tik maiatzaren 4ra; “Soldadura TIG”
maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); “Elektrezitate I”
apiribiaren 8tik maiatzaren 20ra; “Excel aurrera-
tua” maiatzaren 6tik 23ra.; “Testuen tratamen-
dua”, martxoaren 9tik apiribiaren 20ra;

“Soldadura TIG (Iruñean), maiatzaren 4tik 25era.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88
eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autono-mico.php>

Lehiaketa

5. Elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. Lanak
bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da.
Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa

Oharra

Urdiaingo eskolan negutegi. bat behar dugu,
hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

Odol emailak.

Martxoaren 20an Arbizu-
Uharte Arakil, arratsaldeaz

Etxarrin galdeketa egiteko.

Autodeterminazioari buruzko herri galdeketa egin
ahal izateko sinadurak biltzen hasi dira.
Interesatuak udaletxetik pasa, astegunetan
10:00etatik 14:00etara.

XVI. Igartza literatura, sorkuntza beka idazle berrientzat. Beasaingo Udalak, CAF
enpresak eta Elkar argitaletxeak beka hau sortu dute
idazle berrientzat. 6.000 euroko diru-laguntza
izango du. Epea: 2013ko ekainaren 30a. Nora bidali:
kultura@beasain.net. Argibideak: Beasaingo
Udaleko kultura eta Euskara saila – Loinazko San
Martin plaza – 20200 Beasain. Telef: 943- 02 80
63, faxa: 943- 02 80 71 eta kultura@beasain.net

Etxeko lantxoak doan. Izena eman Larrezabal
denboraren kutxan,
larrezabaldk@inigoarritza.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural
kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak
3008 0093 66 2460985811

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen
azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu
ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, elimina-
toria. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/piku-mus-txapelketa-azkarra. 5 € bikoteko. Saria bi
gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada. DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleei
zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago.
Informazio gehiago Nagore Narbarte, Marketing
saila, 943- 36 30 40 telefonoan, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elhuyar.com helbideetan.

Auzolana Josefina Arregui klinikan.
Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38
50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoa-
tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

HERIOTZAK

- **Jose Jabier Irisarri Itsaso,** otsailaren 17an Etxeberrin.
- **Luis Martinez Muruzabal,** otsailaren 21ean Olaztin.
- **Maria Jesus Callejas Castillejos,** otsailaren 22an Olaztin.
- **Josefa Mendia Lezea,** otsailaren 22an Ziordian.

Informazio hau epaitegietan eta
udaletan jasotzen da

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi
duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago:
amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta
amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko
kuota urtean eta deskontu eta abantaila parega-
beak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman
edo bete formularioa gure webgunean www.guai-xe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak,
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez,
Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publi-
koen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen.
Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian
dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman.
Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea
zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68
9152623199.

Txirrindularitza



Pablo Urtasunek puntuatzen zuten hiru gainetan puntuazio altuena lortu zuen eta Almeriako Mendiko Saria jaso zuen.

Urtasunendako Almeriako Klasikoko Mendiko Saria

Mark Renshawek irabazi zuen, igandearen Almeriako Klasikoa. Euskalte-leko Pablo Urtasun urdiaindarrak Mendiko Sari Nagusia irabazi zuen, eguneko ihesaldian sartu eta gero. Movistarreko Imanol Erbiti 32.a izan zen helmugan, eta Urtasun 65.a.

VERDUGO PARIS-NIZAN ETA EGOI ETA AZANZA TIRRENO ADRIATIKON

Martxoaren 3tik 10era jokatu da Paris-Niza. Euskalteleko Mikel Nieve buru dela, hari lagunduko dio Gorka Verdugok. Bestalde, Samuel Sanchezek gidatuko dutalde laranja martxoaren 6tik 12ra jokatu du den Tirreno-Adriatikon. Hari laguntzen Egoi Martinez keta Jorge Azanza egonen dira.

ASTEBURUKOA

Juniorrek igandean proba dute Villatuertan (77,6 km, 11:00etan) eta masterrek bi proba dituzte, larunbatean, Tafallan (100 km, 15:30ean), eta igandean Oliten (110 km, 10:00etan). Afizionatuek ere bi proba dituzte. Larunbatean Zumaiako lasterketa (9:30ean, 112,5 km). Eta, igandean, Ereñokoa (108 km, 10:30ean). Bestalde, Rural Kutxa BTT saria igandean hasiko da, izkuen, 10:25etik aurrera.



Aralar eta Burunda txirrindularitza taldeen aurkezpena bihar

12:00etan aurkeztuko da Aralar, Irurtzunen, eta 16:30ean Burunda, Altsasun

Aralar Txirrindularitza Taldearen 2013ko egitasmoa bihar aurkeztuko da, 12:00etan, Irurtzungo udaletxean. Txirrindularien argazki sesioak eta egitasmoaren azalpenak ez dira faltako. Aurtan, Aralar Txirrindulari Taldeak hiru talde izanen ditu: eskolako taldea, kadeteak eta juniorrak. Burunda Txirrindularitza Taldeak 2013 denboraldiaren aurkezpena egingen du bihar, 17:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Aurretik, 16:30ean, txirrindulariei argazkiak ateratzeko aukera izango da Iortia Kultur Guneako kanpoaldean. Aurtan lau talde izango ditu Burundak: Katealde-Tasca Don Jose, Blender eta Azazeta eskola (15 hasiberri, 2 kimu eta 8 haur), Quesos Albeniz kadeteak (6 txirrindulari), Quesos Albeniz jubenilak (4 txirrindulari) eta Rural Kutxa afizionatuak (23 urtez azpikoak eta eliteak).

Aumotobilismoa-Rallya

Motorrak martxan

ASTE ESKAS BAT FALTA DA I. OLAZTI-URBASA RALLYSPRINTERAKO. SAKANA MOTORSPORT TALDEA PRESTAKUNTZETAN MURGILDUA DABIL. RALLYSPRINTAN JASOTAKOA GUAIXERI ETA BELEIXERI LAGUNTZEKO BIDERATUKO DA

Sakana Motorsportek antolatuta, martxoaren 9an, hurrengo larunbatean, I. Olazti-Urbasa Rallysprinta jokatu da, Denboraldiko lehen-dabiziko lasterketa hau Nafarroako Rallysprint Txapelketarako proba puntuagarria da.

Antolakuntzak 5,5 km-ko zirkuitu polita antolatu du, Olaztiko herri gunean hasi, Urbasako Altamiraino igo, Altsasuranzko bidetik jaitsi eta Olaztiraino helduko dena, bihurgunez eta zailtasun tekniko-ko maniobrez josia. “Oso zirkuitu interesgarria da. Tarte hain laburrean, 5,5 km-tan, denetatik du: 7 bidegurutz, aldapak, espaloiak, Urbasara igotzen bi rasante jarriko dira, chicaneak...” dio Sakana Motorsporteko Joseba Aldaz pilotuak. Probak jakin mina piztu du. “Asteburuan Gabirian rallysprinta dago eta jendea Olaztiko probaz galdezka ari da. Urbasak beti erakartzen du” gaineratu du Aldazek.

Zirkuitu ikusgarria

Pilotu bakoitzak 4 aldiz osatu behar du 5,5 km-ko zirkuitua. “Rallysprinta 14:00etan hasiko da, baina pilotuek azken pasada iluntasunean egingen dute, 18:30-19:00etan hasita. Oso polita eta ikusgarria izango da. Eta zaleek gertutik ikusi ahal izango dute dena” ziurtatu du Aldazek. Herrian bertan ikusle asko espero dira, baina baita Altamira gainean eta Altamirako jaitsieran. “Altamiratik beherako eremu hori eremu azkarra da eta autoak abiaduran jaitsiko dira. Tokierakargarria da proba ikusteko” gaineratu du Olaztiko pilotuak.

Puntako ikuskizuna izanen da. Momentuko pilotuak espero dira, iaz Euskal Herriko Rally txapelke-



Irudi ikusgarriak utziko ditu Olaztiko Rallysprintak hurrengo larunbatean. UTZITAKOA

tako txapeladunorde Perez “Los Txutxi” anaiak, Castrotarrak... eta pilotu eta kopilotu sakandarrak ere. “Arkaitz Irigoien Oier Larrañaga kopilotuarekin, Garikoitz Goñi, Iñaki Gastaminza, Garikoitz Flores... pilotuak aritzekoak dira, baita Javier Goikoetxea kopilotua, pilotu leitzar batekin. Ni neu baita, Iker Azkargorta kopilotuarekin, autoa puntuan jartzeko astia baldin badut” adierazi digu Joseba Aldazek. Sergio Ondarra pilotu bakaikoarra 0 auto bikoitzean joanen da, eta Iban Lopez de Goikoe-txea pilotu olaztiarra 0 autoan. Baina oraindik ere izena ematea zabalik dago eta inskripzio gehiago espero dira.

Antolakuntza prestakuntza lanetan murgildua dago. “Nafarroako Automobilismo Federazioak probaren komisarioak jartzen ditu, baina boluntarioak behar ditugu bidegurutzetan eta segurtasunean egoteko. Lagundu nahi duenak dei dezala 677 85 81 83ra” eskatu du Aldazek.

Entrenamenduak

Asteburuan ibilbidea ezagutzeko parada izango dute pilotuek. “Errekonozimendu itzuliak izango dira, notak hartzeko. Errepidea zabalik egongo da eta, hortaz, gehienez orduko 35 km-ko abiadura hartu ahal izango dute” azaldu digute.

Jasotakoa Guaixe eta Beleixe bulkatzeko

Sakana Motorsportek Guaixe eta Beleixe Sakanako euskal komunikabideen alde egin nahi izan du. Horrela, komunikabide horiek sustatzen dituen Bierrik fundazioaren dako izango da Olaztiko Rallysprinteko sarreran kobratuko den dirua. “Bierrik fundazioko kideek sarrera kobratuko dute eta rallysprintarengatik bereziki laguntza emango dute trukean. Horregatik rallysprinta ikustera datozen guztiek, argi izan dezatela sarrera ordaintzen eta eremua garbi uzten Guai-xeri eta Beleixeri mesede handia egingo dietela” azpimarratu dute Sakana Motorsport taldekoek.

Bierrik fundazioak boluntarioak behar ditu: 948 564 275

Guaixe astekaria eta Beleixe irratia kudeatzen dituen Bierrik fundazioak boluntarioak behar ditu martxoaren 9an, Olaztiko Rallysprintean, sarre-rak kobratzeko eta garbiketa lanak egiteko. Mesedez, boluntario izateko deitu 948 564 275ra edo bidali mezua bierrik@guaixe.net posta elektronikora.

www.fenauto.com

Olazti-Urbasa Rallysprintean inskripzioak egiteko Nafarroako Automobilismo Federazioaren web gunea. **Martxoaren 4ra arte** egin daiteke inskripzioa.

Segurtasuna helburu

Sakana Motorsportek eskaera berezia egin nahi izan du: inor ez dadila joan Olaztin prestatu-tako zirkuitura entrenatzera. Izan ere, gertatzen ari da. “Sakana Motorsportetik eskatu nahi diegu, mesedez, benetako zale-tuak badira, Olaztiko bizilaguna-k, rallysprintean lan egingo duten boluntario guztiak, lagun-du diguten babesle guztiak, eta eskuderia honetako kide guztien lana errespetatu dezatela eta ez daitezela asmo horiekin etorri. Sakanara Rallye eta Igoerak bueltatzeko esfortzu ikaragarria egiten ari gara, eta honen jarrai-pena guztion jarreraren esku dago” nabarmendu dute. Izan ere, Sakana Motorsportendako segurtasuna bermatzea oso inportantea da. “Segurtasuna ezinbestekoa da, bai proba aurretik eta baita proban bertan. Kotxe karreraz ari gara. Horregatik antolakuntzari eta segurtasun taldeari kasu egin behar zaio” nabarmendu dute.

Aizkora

BINAKAKO URREZKO AIZKORAKO FINAL HANDIA

Nazabal-Zubiagak txapela helburu

Otaño-Otaegiren kontra ariko dira final handian, igande eguerdian Azpeitian (ETB1)

Iritsi da urteko lehen aizkora finala, Egur Sportek antolatutako Binakako Urrezko Aizkora Txapelketa, hain zuzen. Finala igandean jokatu da, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, 12:00etan eta finale-rako txartela lortu duten bikoak ondokoak dira: Floren Nazabal-Joxe Angel Zubiaga eta Unai Otaño-Joseba Otaegi.

Bi bikoak txapelketa ona egite-tik datoz eta primerako mailan



Nazabal, EHko txapelduna izan zenean.

daude. Etxarri Aranazko Floren Nazabal aizkolari beterranoak iaz primerako denboraldia egin zuen, jokoan zeuden ia txapelketa guztiak irabaziz. Eta aurtan, dagoeneko, bere lehen finala jokatu du, Zubiaga-rekin batera. Lan bikaina egite-tik datozen eta egungo txapeldunak diren Unai Otaño eta Joseba Otaegi garaitu behar dituzte txapela janzteko. Otaño eta Otaegi egungo txapeldunak dira, baina Nazabal eta Zubiaga ere maila onean daude. Beraz, lehia estua aurreikusten da, edonor izan daiteke garaile. Izarrai-

tzek argituko du nork jantziko duen lehen txapel hau, baina espero dezagun txapela Sakanan ikustea.

Bikote bakoitzak 6 lan egin behar ditu, guztira 16 enbor erdibituz.

Zilarrezkoa

Urrezko Binakakoarekin batera Zilarrezko Binakakoaren finala jokatu da igandean Azpeitian. Sakanako Aizkora Eskolan trebatutako Arkaitz Jauregik eta Julen Kañamares III.ak Daniel eta Iker Vicente izan zituzten aurkari.

Eskia

Otzaurten eskian

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Urbasa-Andia Ipar Eski Taldearen eta Altsasuko Mendigoizaleak taldearen laguntzarekin, ipar eski ibilaldia antolatu zuen iganderako Urbanan.

Eskiatzaileak autobusez Lizarragara eman eta Urbasa-Andian ibilaldia egin ondoren kirolariak Urbanan jasotzea zen kontua, gero, norbera bere herrira jaisteko. 13 eskiatzailek eman zuten izena, baina ibilbidea Otzaurtera lekualdatu behar izan zuten. “Urbasa-ra eta Lizarragara ezin zen igo, haizeteen arriskua zegoelako. Horregatik ipar eski ibilbidea Otzaurten egin genuen, Aizkorriranzko bidean” azaldu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Teknikak eta beste

9:15etik 13:30ak arte ibili ziren eskiatzen, Urbasa-Andia Ipar Eski taldearen eta Altsasuko Mendigoizaleen gidaritzapean. Bi talde sortzea aurreikusten zen, hasi berriena eta ibilbide luzea egingo zuenarena, baina azkenean talde bakarrean aritu ziren. Ipar eskia- ren teknikak ikasi zituzten. “Teknikak irakatsi zizkiguten: pausu alternoa, jaitsierak kuña egiten... ongi egon zen” gaineratu du teknikariak. Eskiatzaile sakandarrak gogo onez eta sentsazio onekin bukatu zuten, eta Jose Mariren Otzaurteko bentan gustura egin zuten hamaiketako, giro onean. Autobusa jartzearena oso ongi baloratu zuten, horrela ez baita autoa hartu beharrik.

Urbasa-Andiaren bilera asteartean



Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunen taldeak bilera deitu du asteartean, martxoaren 5ean, 20:00etan, Altsasuko Mendigoizaleen egoitzan. Orain arte egindakoaz, egoera ekonomikoaz, gastuez eta egin beharreko lanen inguruan ari-

ko dira. Bestalde, taldeak oroitarazi nahi du www.altsasukomendigoizaleak.com web gunean taldearen inguruko informazio eguneratua ikusgai dagoela, kontsultagai. Gainera, bertara argazkiak bidali daitezke.

Disko jaurtiketa



17 urterekin June Kintanak sekulako progresioa du. Absolutuan, elitekoen kontra lehiatuz hirugarrena izan zen. Zorionak!.

June Kintanaren brontzea

Larunbatean Atletismoko Jaurtiketa Luzeen Espainiako Txapelketa Absolutuak jokatu ziren Leonen. 17 urteko June Kintana bakaikoarrak (Grupo ISN Pamplona Atletico) brontzeko domina lortu zuen disko jaurtiketan. Ondoko jaurtiketak egin zituen: 47,54m, 48,35m, 47,45m, bi jaurtiketa baliogabetu eta 48,89m. Azken hori izan zen bere jaurtiketa onena. Sabina Asenjo (57,43 m) eta Belen Toimil (50,42m) atleten atzetik sailkatu zen. Primerako lana.

Trinketea-Pala



Yanira Aristorena etxarriarrak eta Zamorak txapela jantzi zuten sekulako partida jokatu eta gero. Zorionak palista etxarriarri!

Aristorena-Zamora txapeldun

Nafarroako Trinkete Txapelketako emakumezkoen pelota gomako txapeldunadugu Yanira Aristorena etxarriarra. Zamorarekin bikotea osatuta, Mugerza eta Ruiz de Larramendi 30-23 hartu zituzten menpean.

Duatloia

Maiza 32.a Mungian

Larunbatean Mungiako V. Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 21 km bizikletan eta 2,5 km korrikan). Iurgi Etxeandia izan zen azkarrena (1:01:07). Juan Luis Maiza etxarriarra 32.a sailkatu zen (1:06:03), probako laugarren beterano onena. Asteburuan bi proba daude: larunbatean Eibarko XXII. Duatloia eta igandean Euskadiko Neguko Triatloi Txapelketa, Izaban.

Mendi lasterketak

Igandean emango zaio hasiera EHko Bertikalen Zirkuituari

Igandean jokatuko da Zuzenien mendi lasterketa, Azpeitian. Proba honekin hasiera emango zaio Open Lafuma-Euskal Herriko proba Bertikalen 2013ko Zirkuituari. Aurten, hiru lasterketek puntuatuko dute aipatutako zirkuiturako: igandeko Zuzenien probak (Azpeitia), irailaren 22ko Uhartarakil-Berriain probak eta urriaren 12ko Anbotoko probak (Arrazola). Igandean goizeko 10:00etan hasiko da Zuzenien proba bertikala, Azpeitian. 2,8 km-ko mendi lasterketa da, 804 metroko desnibela duena. Korrikariak banaka aterako dira eta euren lana neuruko da, erlojupekoan. Azkarrena izango da onena.

Herri kirolak

Herri Kirol Jokoen txanda

ANDRA MARI IKASTOLA, PUTTERRI (ANDRA MARI IKASTOLAKOA) ETA IÑIGO ARITZA IKASTOLA ARIKO DIRA

Asteburuan hasi ziren, Berrioza- rren, Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarekin batera urtero antolatzen dituen Herri Kirol Jokoa. Bertan hiru kategorietako neska-mutilek hartzen dute parte: kimuak (11-12 urte), haurrak (13-14 urte) eta kadeteak (15-16 urte). Taldeak mistoak dira.

Haur eta kadete mailetan bitxapelketa jokatzeko dira: sokatira eta proba konbinatua (koxkol biltzea, zaku lasterketa, txingak, korrika eta trontza). Aldiz, kimuen mailak soilik proba konbinatuko txapelketa egiten du, trontza modalitatea jokatu gabe.



Zaku lasterketa.

1. jardunaldiko emaitzak

Kimuen konbinatuan 8 talde ari dira lehian, Berrioza, BKE (Berrioza-koa), Basaburua, Araxes, Ultzama, Andra Mari ikastola, Putterri eta

Iñigo Aritza ikastola, azken hiru- rak sakandarrak. Lehen jardunaldian Andra Mari izan zen azkarrena (6:57), Putterri 3.a (7:14) eta Iñigo Aritza 8.a (7:58).

Haurren mailan, proba konbinatuan, 7 talde daude: Berrioza, Basaburua, Araxes, Ultzama, Andra Mari, Putterri eta Iñigo Aritza, azken hiruak sakandarrak. Berrioza izan zen azkarrena (8:43), Andra Mari 2.a (9:25), Iñigo Aritza 4.a (10:07) eta Putterri 5.a (10:17). Haurren mailako sokatiran (480 kg) aipatu talde guztiak ari dira, Basaburua eta Ultzama izan ezik. Berrioza- rrek eta Iñigo Aritzak puntutara berdinduzuten (4,5 puntu), Andra

Mari 3.a izan zen (3 puntu) eta Putterri 5.a (puntu 1).

Azkenik, kadeteetan 4 talde dabil- tza proba konbinatuan, Berrioza, Basaburua, Ultzama eta Andra Mari ikastola etxarriarra. Andra Mari izan zen lehen jardunaldian onena (10:09). Basaburua kenduta beste taldeak ere sokatiran ari dira lehian, eta atzera ere Andra Mari moldatu zen hobekien (2,5 puntu), Berrioza- rrekin berdinduta.

Txapelketan guztira 5 jardunaldi jokatuko dira, 4 jardunaldi eta finala, martxoaren 24an Larraintzarrek hartuko duena. Bi jardunaldi Sakanan jokatuko dira: martxoaren 10ean, Altsasun, eta martxoaren 17an, Etxarri Arantzen edo Arbizun. Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia igandean jokatuko da, martxoaren 3an, goizeko 11:00etan, Betelun.

Areto futbola

Triman berriro El Pozoren kontra

NAHIZ ETA IKUSGARRI ARITU, TRIMAN NAVARRAK EZIN IZAN ZUEN EL POZO IRABAZI ESPAINIAKO KOPAKO FINAL LAURDENETAN

Triman Navarra Xotak ezin izan zuen El Pozo Murcia talde ahaltsua menpean hartu Espainiako Kopako final laurdenetan. Ikusgarri jokatu zuen Irurtzungo taldeak, bikain, baina ez zuen saririk jaso.

Talde ahaltsuen kontra aritzekoan bi premisa bete behar dira: ongi defendatzea eta kontrako atean ongi haztatzea. Lehena ongi bete zuen Trimane, baina, bigarren- an asmatzea falta izan zitzaion. Gol aukera dezente izan zituzten irurtzundarrek, baina, barkatu zuten. Eta hor joan zitzaion partida. Buker- an, 3-5 galdu zuen Trimane. Pena handia, Irurtzungo taldeak gehiago merezi baitzuen, El Pozo talde ahaltsuaren pare ibili bai- tzen. Bi taldeek duten aurrekontuak -txikia bata eta izugarria beste- ak- erabaki zuen lehia.

Gaur errebantxarako aukera



Trimanek kopako errebantxa bilatuko du gaur, ostiralean Iruñean, ligan El Pozo izan baitu aurkari. Anaitasuna pabilioian, 20:30ean. El Pozo Bartzelonaren kontrakopa galtzetik dator eta ligan soilik puntu bateko aldea dute Bartzelona

liderrak eta El Pozok. Beraz, lidergoa dago jokoan. Trimane ere 5. postuari eutsi nahi dio eta kopako errebantxa nahi du. Trimane iaz arte talde irurtzundarreko atezain izandako Juanito jokalaria iri omenaldia eginen diopartida hasieran.

“Gola erosi egiten da”

Imanol Arregi triste zegoen. “Partida ate aurrean izandako diferentziak markatu du. Guri asmatzea falta izan zaigu eta beraiek, aldiz, asmatu dute. Kontentua nago egin dugun jokoarekin, joko ona egin dugulako, baina, ez galdu izanagatik. Halako txapelketetan ezin da akatsik egin eta guk punteria falta izan dugu. Hor nabaritzen da taldeen arteko aurrekontu ezberdintasuna. Gola erosi egiten da: Miguelin, Wilde, Lozano... halako jokalaria fitxatzearekin konpon- tzen da. Baina, gu Xota gara. Gola erosi egiten da eta beste guztia entrenatu egiten da” adierazi zuen partida bukaeran Arregik. Egin- dako lanarekin, hala ere, konten- tu zegoen irurtzundarra.

Futbola
3. MAILA
26. JARDUNALDIA
LAGUN ARTEA 3 – IRUÑA 1 Lagun Artea Iruña baino hobe a izan zen, gol aukera gehiago izan zituen eta Unai Bakaikoari esker aurreratu egin zen. Iruñeak berdintzea lortu zuen baina Bakaikoak 2-1ekoa lortu zuen. Merezitako garaipena..
Sailkapena >>
 1. Mutilbera 12. Lagun Artea .54 p .35 p
Asteburuko jardunaldia
MUTILBERA – LAGUN ARTEA (Igandean, 16:30ean, Mutiloabeitin)
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
21. JARDUNALDIA
LEZKAIRU 1 – ETXARRI ARANATZ 0 SAN JUAN 2 – ALTSASU 0 Lezkairu eta Etxarriren arteko partida ona izan zen. Lezkairuk Etxarriko taldearen erasoak ongi defendatzen jakin zuen eta 86. minutuan irabaztea lortu zuen. Bestalde, San Juan liderrak hasieratik hartu zuen menpean Altsasu. Partida guztian barna dominatu zuten iruindarrek eta 2-0 irabazi zuten.
Sailkapena >>
 1. San Juan 8. Etxarri Aranatz 9. Altsasu .55 p .22 p .20 p
Asteburuko jardunaldia
ETXARRI - SAN JUAN (Igandean, 15:30ean, Etxarri Aranatzen) ALTSASU – AUERRERA (Igandean, 16:15ean, Altsasun)
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA
18. JARDUNALDIA
ZALDUA – SANTA CRUZ (atzeratuta) ROCA 0 – EGIARRETA 5
Sailkapena >>
 1. Unziti 6. Zaldua 7. Egiarreta .25 p .16 p .15 p
Asteburuko jardunaldia
ROCA – EGIARRETA ZALDUAK atsed en jardunaldia du.

Areto futbola
SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK
Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 3. itzuliari ekingo zaio asteburuan. 13. jardunaldia dago jokoan.
13. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)
PATINTER – AREZPE AUZOMOTOJORIK – PIPEROXKI BILTOKI – ASS APPLE
EMEKUMEEN SENIOR MAILA
1. MULTZOA. 1. FASEA
LEZKAIRU – ALDABIDE (Ema itza jaso gabe)
Sailkapena >>
 1. Gima Ribera 3. Arbizuko Aldabide .42 p .32 p
Asteburuko jardunaldia
ALDABIDE – TAFATRANS (Igandean, 12:00etan, Arbizuko kiroldegian)

Saskibaloia

CBASKen asteburua

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA
2. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA
ALTSASU CBASK 21 – CANTOLAGUA 58
Sailkapena >>
 1. Liceo Monjardin 5. Altsasu CBASK .4+2 p .2-2 p
Asteburuko jardunaldia
GAZTE BERRIAK – ALTSASU CBASK (Igandean, 12:00etan, Antsoainen)
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA
1. MAILA AUTONOMIKOA
ALTSASU CBASK 39 –LICEO MONJARDIN 51
Sailkapena >>
 1. Burlata A 11. Altsasu CBASK .30+15 p .17-10 p
Asteburuko jardunaldia
BURLATA B – ALTSASU CBASK (Igandean, 10:15ean, Burlatan) *OHARRA: Gainontzeko taldeen informazioa www.guaixe.net-en .

Pilota

Binakakoa. 10. Jardunaldia. Puntuazioa:

8 puntu:

Irujo-Zabaleta

7 puntu:

Olaizola II.a-Zabala

Bengoetxea-Beroiz

5 puntu:

Titin-Merino

4 puntu:

Ezkurdia-Zubieta

Xala-Barriola

3 puntu:

Berasaluze-Albisu

2 puntu:

Arretxe-Begino

Yes, we can

EZKURDIAK ETA ZUBIETAK BINAKAKO FINALERDIETARAKO SAILKATZEKO AUKERAK DITUZTE ORAINDIK, 4 PUNTUREKIN. IRUJOK ETA ZABALETAK FINALERDIETARAKO PASEA IA ZIURTATUTA DUTE

Binakako Txapelketa.
11. Jardunaldia jokoan:
Berasaluze-Albisu / Ezkurdia-Zubieta (ostiralean, 22:00etan, Urdulizen. ETB 1)
Olaizola II.a-Zabala /Irujo-Zabaleta (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB 1)

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka despeditzeko 4 jardunaldiren faltan, gauzak argitzen doaz. Irujok eta Jose Javier Zabaletak 8 puntu dituzte eta finalerdietarako pasea ia ziurtatuta dute. Asteburuan 14 tanto egitea- rekin erabat ziurtatuko lukete finalerdietan egotea. Beste bi bikok ere finalerdietan egoteko aukera asko dituzte, 7na punturekin: Olai- zola II.a-Zabala eta Bengoetxea- Beroiz. Finalerdietarako lauga- rren bikotea nor izango ote den, hori da oraindik argitu gabe dago- ena. Gainera, gauzak oso estu dau- de, 5 puntu baitituzte Titin-Meri- nok eta 4na puntu Ezkurdia-Zubie- tak eta Xala-Barriolak. Berasaluze-Albisuk 3 puntu dituz- te eta egoera nahiko zaildu zaie. Baina oraindik 4 jardunaldi falta dira eta edozer gerta daiteke.

Ezkurdia errematatzailea
Azken asteotako bolada onari eutsiz, Arretxeri eta Beginori 22-13 irabazi zieten Ezkurdiak eta Zubietak. Zubietaezzen guztizero- so aritu, baina, Ezkurdiak ongi babestu zuen etxarriarra. Gaine- ra, errematean bikain aritu zen arbizuarra. 9 tanto egin zituen, eta sentsazio bikainak plazaratu. Sakandarrek nekearen aurrean hobeto erantzun zuten eta partida bukaeran Zubietak atzean domina- tu zuen eta Ezkurdiak aurrean. Oraindik aukerekin daude.

Zirkoa

Zirko Eskola Sakanan

APIRILAREN 2TIK 5ERA IZANEN DA, ETXARRI ARANATZEN. IZENA EMA- TEA ZABALIK DAGO MARTXOAREN 18RA ARTE

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak, Etxarri Aranazko Uda- laren laguntzarekin, Zirko Esko- la antolatu du apirilerako, Pazko Astean. Zirko Eskola Etxarri Ara- natzen gauzatuko da, Andra Mari ikastolako soinketa gelan, apiri- laren 2an, 3an, 4an eta 5ean, hain zuzen ere, ikasleak Aste Santu ondoko opor astean daudenean. Zirika Zirkus taldeko kideek gida- tuko dute Zirko Eskola. Mota guz- tietako akrobaziak eta mugimen-

duak ikasteko aukera izango da eurekin. Klaseak euskaraz izanen dira, baina norbaitek euskaraz ez badaki, berari gazteleraz zuzendu- ko zaizkio. Bi taldetan eman daiteke ize- na: 8-12 urtekoan (goizeko 10:30etik 12:00etara) eta 12-16 urte artekoan (12:30etik 14:00etara). Gehienez ere 14 gazte onartuko dira talde bakoitzean, eta jende gehiagok ematen badu izena, tokiak zozke- tatuko dira.

Oraindik aukerak badituzte



Joseba Ezkurdia arbizuarra eta Aitor Zubieta etxarriarra finalerdietarako sailkatzeko lehia barruan daude. Oraindik posible dute sailkatzea, nahiz eta, horretarako gelditzen diren jar- dunaldietan irabaztera behartuta egon, eta arerioak huts egitea espero, jakina. Gaur, osti- ralean, Urdulizen, partida erabakigarria jokatuko dute Berasaluze eta Albisuren kontra. Josebak eta Aitorrek partidaz partida planteatzen dute txapelketa, eta ongi doakie. Txape- lketan maila ona eman du Zubietak hasieratik, baina Ezkurdiak Gonzalez ordezkatu zue- netik bere maila onak erantzuna du aurreko koadroetan eta haizea alde dute biek.

Ez zen Zabaletaren eguna izan
Oinatz Bengoetxeak eta Mikel Beroizek zailtasun handirik gabe irabazi zieten Irujo ordezkatzen zuen Julen Retegiri eta Jose Javier Zabaletari. Iberoko aurrelariaren falta askonabarituzen. Pilota bakar bat ez zuen galdu Retegik, baina, soilik tanto bat egin zuen eta ez zuen emandako aukera behar bezala aprobettxatu. Jokoan erritmo gehia- gorekin aritzea falta izan zitzaion Retegiri, errematatzera sartzea, eta ezker gantxoz gehiago ausar- tzea. Izan ere, Etxarrengo atzela- ria ezzeneroso sentitu partida osoan, eta aurrelariaren laguntza fal- ta izan zitzaion Bengoetxea eta Beroizen erasoa erantzuteko. Zabaletak hutsasko egin zituen, tanto asko galduz. 7 sake utzi zituen behar bezala errestatu gabe, eta nahiz eta bere eskuinarekin kol- pe ederrak eman, nekatuta despe- ditu zuen partida. Oinatzek eta

Beroizek Zabaleta nekatzen eta aurrean ongi errematatzen asma- tu zuten eta 22-8 gailendu ziren. **Datorrena**
Irujo amigdalitisetik osatuta dago eta prest egongo da Zabaletarekin batera Aimar Olaizolaren eta Zaba- laren kontra egiteko. Irujo eta Aimarren kontrako partidak beti dute morbo puntu hori, ikusmina, eta gainera bi bikoek borroka han- dia eginen dute, lasaitasuna eman- go dien puntua baitago jokoan. Bestalde, finalerdietarako ligax- karako sailkatzeko aukerak izan nahi badituzte, Ezkurdia eta Zubie- ta Berasaluzeri eta Albisuri irabaz- tera derrigortuta daude. Partida zai- la aurreikusten da, baina, sakan- darrek haizea alde dute. Berasaluzek eta Albisuk astebu- ruan emandako itxura txarra hobe- tu nahi dute, nahiz eta txapelketan apenas aukerarik ez izan.

Malerrekako txapelketa

Esnalendako eta Gorritirendako

Larunbatean Malerrekako txapel- ketako finalak jokatu ziren, 7 kate- gorietan. Senior elite mailan Iñaki Esnal hernaniarrak eta Jon Gorriti uharte- arrak garaipen polita lortu zuten Bellosori eta Etxamendiri 22-13 irabazita. Esnalek (39 ute) eta Gorritik (31urte) ofizioa eta esperientzia alde izan zuten final gogor eta estua era- mateko. Erritmo handiko partidan hasieran parez pare aritu ziren bi biko- ak, baina, Esnalek eta Gorritik parti- da apurtu zuten, 17-9 aurreratzera lortu baitzuten. Hortik aurrera garai- pena eskuan izan zuten.

Sakandarrak Zizurko lau t´erdian

Zizurko lau t´erdiko final laurdenak jokatu ziren asteburuan.

Sakandarren emaitzak:
Gazteak: Pozueta (Aldabide) 3 – Medel (Titin III.a) 18 Seniorrak: Rodríguez (Beloki) 13 – Ezkurdia (Irurtzun) 18 Otxandorena (Txaruta) 18 – Karrion (Irurtzun) 3 Kimuak: Mariñelarena (Aldabide) 6 – Víg era (Najerino) 16 Haurrak: Mata (Oberena) 16 – Olaetxea (Aldabide) 9 Salaberria (Erreka) 16 – Nazabal (Aldabide) 1

Irurtzun eta Altsasu Espainiako Kluben Arteko finalerdietan

Asteburuan jokatuko da Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketako azken fasea, Imarkoango Iturrondo pilotalekuan. Ostiralean, 17:30ean, Buruz buruko finalerdiak jokatuko dira. Irurtzunek Titin III.a izango du aurkari eta Pelota Madridek San Ati- lano. Eskuz binakako finalerdian Irurtzunek Uharte Iruñea izango du aurkari eta Altsasuk San Atilano.



Mota guztietako ariketak irakatsiko dituzte Zirika Zirkus taldekoek.

Izena emateko

Sakanako Mank-eko kirol zerbitzu- ra jo behar da martxoaren 18a bai-

no lehen (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakana-mank.com pos- ta elektronikoa). Prezioa: 5 euro.

kultura >>

Familia albumetik kultur etxera



Myalbum. Bienvenido al reino de la apariencia argazki erakusketa asteazkenean zabalduko da Altsasuko Iortia kultur gunean

Alexandra Baures komisarioak 3 argazkilari-
ren serie banarekin
ondu du erakusketa.
Hiruek ahaztutako familia argaz-
kiak (norberarenak edo bestee-
nak) dituzte haien lanaren abia-
puntu. “Bizitako instanteak berri-
ro bizitzea bilatzen dute; lehenaren
eta orainaren arteko joan etorri
bat sortuz” Bauresen arabera,
“ezagun zaigun zerbaite sortuz eta

argazkiei bizitzea berria emanez”.

Familia argazkietan ohi beza-
la, erakusketan posatuak dira
nagusi, betiko aurpegi onena era-
kutsi nahi delako. Familia argaz-
ki albuma, “oroitzapenen eta nor-
beraren memoriaren eraikuntza-
rako artxibo egitasmoa desagertu
egin da. Ordenagailuko karpete-
tan gordetzen ditugu orain argaz-
kiak. Materialitatea galduta. Argaz-
kilariak egungo praktikak
zalantzan jartzen dituzte, familia
albuma berreskuratuz”.

Egileak

Maria Alchék (Buenos Aires, 1983)
bere familia albumean espazio
handiak zituzten argazkiak auke-
ratu zituen eta haietan bere burua

Post programa

Asteazkenean mustuko den era-
kusketa programa horren 3. frui-
tuada Myalbum erakusketa. Zangoza,
Noain-Elortzibar, Uharte-Iruña eta
Altsasuko kultur etxeek
sustatutako programa. Artegarai-
kidea zabaltzea du helburu. Era-
kusketarekin batera, gazteak arte
garaikidera hurbiltzeko progra-
ma didaktikoa eskaini zaie ikas-
tetxeei. Gainera, heldu den osti-
ralean, 19:00etan, bisita gidatua
egonen da.

txertatu zuen. Horrela, bere seni-
deekin, haiek zuten adin berean,
uneak partekatzeak aukera du,
garaiko arropak ere jantzi zituen.
Aiton-amona edo gurasoekin bate-
ra ageri da lanetan.

Paco Gomezek (Madril, 1971)
Modlindarren argazki albuma har-
tu du oinarri. Familiakoek haien
buruari argazkiak egin zizkieten,
gero emazteak margotu zituzten.
Gomezek posatuak birsortu ditu.

Maidier Kuadrak (Iruña, 1974)
aitonaren artxiboa arakatu zuen.
Haren argazkiak familiaren Arne-
doko etxean zituzten ikusgai. Mai-
derrek haien ingurunean hartu
zituen. Eta, aldi berean, bere burua
ri argazkiak egin zizkion, haurra
zenez bezala. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)


Sexu indarkeriaren kontrako antzerkia

Larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo
kultur etxean. Sarrera librea

Bortxaketak, etxeko tratu txar-
rak, ebakitze genitala, sexu
esplotazioa, heriotza... munduan
barna emakumeek jasaten duten
sexu indarkeriak aurpegi ugari
ditu eta horien isla antzeztokira
eraman du Zarrapastra antzerki
taldeak. Lanak *El miedo que me
habita* du izenburua.

Bi zati ditu antzeztan. Aurre-
nekoan, lau emakumeren baka-
rrizketen bidez, etxe barruan sexu
indarkeriaren lekukotzak emanen
dira. Emanaldiaren bigarren zatian,
berriro, etxea utzi eta munduan bar-
nako feminizidio kasuak ekarriko
ditu Zarrapastra taulara.

Assumpta Bragulatek zuzen-
dutako lanean Manolo Almagro,
Alejandro Arizkunek, Mariabel
Ballazek, Cesar Garbayok, Carmen
Izalek, Jaime Malonak, Nieves
Oteizak, Adelaida Santestebanek
eta Puy Tirapuk parte hartzen
dute. Sexu indarkeria kasuak gora
egiten ari diren honetan gizarte-
ak, eta haien arduradunek, bazte-
rrera begiratzen dute, inguruan
kasuren bat egokitu arte? Galde-
ra hori egiten du Zarrapastra.



Santutegiko bolizko kutxa islamiar Kultur Intereseko Ondare

Bere balio handiagatik, mun-
duan halako lau kutxa beste-
rik ez dira ezagutzen Nafarroako
Gobernuak Aralarako santutegiko
bolizko kutxa (XI.-XII. mendea)
Kultur Intereseko Ondare izenda-
tu du. Bolizko bloke batean egin-
dako kutxa bat da, lauki luzea, tapa
irristailua duena. Ertzetan graba-
tutako dekorazioa du eta tapan ara-
biar karaktereekin idatzitako tes-
tuak ditu.

Kutxa islamiar horren jatorria
ezezaguna da. Ekialdean, Egip-
ton, kokatzen dute batzuk bere jato-
rria, baina ez dute baztertzeko his-
paniar musulmanena izatea. Tru-
kean aritzen ziren pertsonak edo
bankariek erabiltzeko pentsatuta
dago. Erdiko zatia borobila da eta
balantza baten platertxoak gorde-
tzeko aproposa da; zati luzean,
berriro, balantzaren ardatza gorde-
ko litzateke, eta gainontzeko espa-
zioetan, pisu-jokoa eta bestelako
tresnak gordeko lirateke. Gerora,
santutegian zegoen Lignum Cru-
cis-eko (Jesus gurutziltzatu zuten
gurutzia) zati bat gordetzeko era-
bilua izan zen. Kapera nagusiko
sagrarioan izaten zuten.

bazterretik

Ana Senar Lasa

euskalAPPS

Euskalapps.net webgunean sake-
lako telefonoetarako eta tableteta-
rako euskal aplikazioak aurki dai-
tezke. Aplikazioak gaika sailkatuta
daude, hortaz, zure behar edo gus-
tuen arabera kontsultatuz gero egun
eskaintzen dituztenak. Hogeita sei
dira gaiak: administrazioa, ipuinak,
jokoak, kirolak, musika, osasuna,
bidaia, berriak, aisialdia, haurrak,
komunikazioa, euskal kantak, eus-
kara ikasteko aplikazioak...

Euskalapps.net-ek aplikazioen bil-
tegi bat baino gehiago izateko
asmoa du eta, horren adibidea, web-
gunera sartu eta berehala ikusi dai-
teke. Orrian euskal aplikazioen era-
bilera bultzatzeaz gain, hauek sor-
tutako argibideak eskaintzen dituzte,

erabiltzailea izan dadin aplikazioa
sortzen duena. Norberak sortu edo
aurrekoak sortu edo aurrekoak
edo proposatzeko aukera ere eskain-
ten dute eta baita beste hizkun-
tzetan jada existitzen diren aplika-
zioak euskaratzeko ere.

Hortaz, aplikazio kontsumitzaile-
ak izateaz gain, aplikazio sortzaile-
ak ere bilaka gaitzake. Aitortu behar
dut, nire telefono mugikorra deiak
egin eta jasotzeko erabiltzen dudala;
baita mezu laburrak jaso zein bidaltzeko.
Ezin dut besterik egin. Esan nahi
dudana da ez duela internet konexio-
rik eta, ondorioz, aplikazioak erabiltzeko
aukerarik ezta ere! Akaso, aldaketara-
ko unea iritsi da, nork daki!

Euskalapps.net webgunean
“Kult!Bilbao”, “noiz”, “kulturize”

eta “KulturMapp” aurkitu ditut. Apli-
kazioen izenak irakurrita kultura-
rekin zer ikusia duten aplikazio-
ak direla ohartuko zineten dago-
eneko. Hala da. Eredu geografiko
baten kultur eskaintza biltzen
dute; hori bai, bakoitzak bere era-
ra. Interesgarria litzateke lau apli-
kazioak eredu hartuta, Sakanako
kultur programazioa eskainiko
lukeen aplikazioa sortuko bage-
nu. Ez al duzue uste?

Beno, hortxe hausnarketarako gaia.
Dagoeneko begi bistan dut: disei-
nu atsegina eta garbia, erabiltzeko
erraza, informazioa filtratzeko
modu ezberdinak, eduki landuak
eta zainduak, sarrerak erosteko
aukera... Beno, azken hau bigarren
fase baterako utzi beharko genu-
ke akaso



enkarteak GUAIXEN
948 564 275 argi@guaixe.net

Enkartzatzea → 340€
Diseinatzea + inprimatzea + enkartzatzea → 455€
eskaintza ez metaqarria

Zure eskuorria
Guaixeren barruan
Sakanako 4.500 etxetan

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

Doinu etxarriarrak Juul kanpainarako

Milaka istorio, milaka abentura kantua grabatu dute ibarreko makina bat musikaririk

Ikastolek bere ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzeko antolatutako kanpainaren ize-na da Juul. Hauteskunde literarioak dira zeinetan ikasleek gustuko dituzten liburuei eta ilustratzaileei beren botoa emanaz, Euskal Herriko bozkatuenak aukeratzen diren. Aurten, hauteskunde literarioen eguna apirilak 18 izanen da. Aurten 15. edizioa du.

Nafarroako Ikastolen Elkarte (NIE) arduratzen da Juul kanpainaz. Literatur zaletasuna bultzatu eta zabaltzeko asmoz kantu bat sortu du eta helburu hori lortzeko: Milaka istorio, milaka abentura. Josu Txapartegi, Txapas, Zarauzko Ikastolako irakasle ohiak prestatutako letrari doinuak



musikari etxarriarrek jarri diote: Xabier Aldaz (Kaotiko, bateria), Luisillo Kalandraka (Vendetta, baxua), Fran Urias (Hesian, gitarra) eta Juanpa Agirre (Akelarreko ohia, ahotsa).

Guztiak Adur Goikoetxeak bildu zituen, Andra Mari ikastolako zuzendariak. Gainera, koroetan abestuzuen Mikel Riego, Irune Ijurrak eta Unax Aiestaran ikasleekin

Kantua

www.youtube.com/watch?v=AKqIE-oCJWqQ&feature=youtu.be

batera. Koroak egiten ere Garces de los Fayos, Paz de Ziganda eta San Fermin ikasleek arituz ziren. Kantua otsailaren 14an grabatu zen Iker Piedrafitaren Sotano estudioan. NIEk guztiei bere esker ona azaldu die.

Leitza eta Lazkoz, finalaurreko saio banatan



Arbizuarra bihar Atarrabian ariko da. Etxarriarra, etzi, bere herriko kultur etxean, 17:30ean

2013ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aurreneko bi final-erdiak jokatu dira asteburu honetan. Atarrabiako kultur etxean, bihar, 17:30ean Julio Soto, Oskar Estanga, Erika Lagoma, Iñigo Olaetxea, Iñaki Aleman eta Josema Leitza ariko dira bertsotan. Hurrengo egunean, igandean, Etxarri Aranazko kultur etxean bertsotan neurtuko dira Xabier

Silveira, Jon Barberena, Eneko Fernandez, Ander Fuentes "Iturri", Josu Sanjurjo eta Eneko Lazkoz. Oier Lakuntzaren txanda, berriz, heldu den astean iritsiko da, 3. eta azken finalaurrekoan.

8 txartel jokoan

18 bertsolari 3 finalaurrekoetan banatuta ariko dira bertsotan. Final-aurre bakoitzeko lehena eta puntuazio onena duten 5 bertsolariak ariko dira martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko finalean.

Escena Dantza Jaialdiko 3 emanaldi apirilean

Murrizketengatik bi urte-tik behin ospatzera pasaden Escena Dantza Jaialdia aurkeztu zuen, asteazkenean, Nafarroako Gobernuak. Kultura Departamentutik azaldu dutenez, urte guztian ziurtatu nahi dute dantza eskaintza, eta jaialdia eskaintza horren pieza bat da. Horrekin batera, literatura, zinema eta lotutako beste arte-diziplina batzuk ere osatuko dute programa.

Escena dantza jaialdiak, martxotik maiatz bitartean, Nafarroako 25 herritara eramane du dantza. Horietako 3 Sakanan daude.

Altsasuk hartuko du lehen dantza emanaldia. Ijitoei haien ibilbide historikoan lagundu dien iratxoaren baitan sartuko da Maria Legarda konpainia eta flamenko ikuskizuna eskainiko du. Hierbarojak Escena 2013 egitarauan eskainiko duen emanaldi bakarra Etxarri Aranazkoa izanen da. Banakakoaren oroimenaren eta oroimen kolektiboaren txoko guztietan barna egindako bidaia, performancea. Irurtzunen, azkenik, Argentinako dantzen magia gozatzeko aukera izanen da Trio Palatinorekin.



Laburbira, film laburren zirkuitua

Topaguneak, euskara elkarte-en mugimenduak 10. aldiz antolatu du Laburbira. Martxoan, euskarazko film laburren emanaldiak 20 herritan egingen dira aurten. Guztietan 8 film emanen dira. Aurten ez da emanaldirik izanenguean. Gainera, egileekin

hitz egiteko aukera ere eskainiko du zirkuitua, "sortzaile eta ikuslearen arteko iritzi truke aberasgarria sustatzeko". Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen (Guaixe astekaria eta Belexe irratia barne) Tokikom-ek lagundu du Laburbira.

MARTXOAK 17, IGANDEA • 17:00

ANTZERKIA

PRINTZEA ETA AHATEA

GORAKADA

10ia KULTURAK

Frontoiko zeharbidia, z.g. 31800 • Altsasu • 948564272 • lortia@altsasu.net • www.facebook.com/lortia

ASTERIX Y OBELIX

AL SERVICIO DE SU MAJESTAD

IGANDEA 3 17:00

BLANCANIEVES

OSTIRALA IGANDEA

1 21:45 3 20:00

EL CUARTETO

OSTIRALA IGANDEA

1 22:00 3 20:10

Sarrerak salgai: leihatila • 019 • entradas.com

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 38%

Min: 1 Max: 6

euria: 10%

Min: 2 Max: 6

euria: 5%

Min: 0 Max: 12

euria: 5%

Min: 5 Max: 12

euria: 23%

Min: 9 Max: 11

euria: 18%

Min: 8 Max: 14

euria: 20%

Min: 8 Max: 15

tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etbarri A.	14.6	-5.9	22.7
Altsasu	13.5	-5	52.9
Aralar	5.8	-10.4	1.2
Urbasa	9	-7	12.4

ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
6	11	19	27

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA
GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

banaketa

- Enkarteak Guaixen (4.500 etxetan Sakanan)
- Buzoneoa

itzulpenak

- gaztelera-euskara
- euskara-gaztelera

Waike

itzulpen zerbitzua

Euskaratu zure idazkiak

Waike

Waike

itzulpen zerbitzua

Euskaratu zure idazkiak

Waike

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza 23-1
31000 Altsasu (Nafarroa)
948 564 275/948 562 107

>>11 galdera

Erkuden de Andres Hegan&Dream espazioa

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

1- Zer da Hegan&Dream?
Hegan&Dream espazio sortzaile bat da. Gauza askotarako den espazioa... Familiarekin eta lagunekin disfrutatzen den espazio samur eta eroso. Sormena, irudimena eta artea estimulatzen duen espazioa. Haur eta helduenakopentsatuta dago: tamaina guztietako aulki eta mahaiekin, sofa handi batekin, kolore eta tamaina guztietako kuxin eta alfondekin, liburuak, margoak, klarionekin, plastilinarekin, jolasekin... Mundu magiko bat da. Hegan egiteko eta amets egiteko espazioa...

2- Nahiko ideia berritzailea da. Nola bururatu zitzaizun?
Azkenekosei urteetan Madrilen arte eszeniko konpainia batean lan egin dut eta Grey Elephant izeneko espazio sortzailean Playgroup proiektuaren koordinatzaile eta arduradun ere aritu naiz. Bertan bizi izandako esperientziak badu bere eragina. Azkeneko hamar urteetan kultura, artea, sormena, hezkuntza... munduan murgildua egon naiz. "Teatro para bebés" antzezlanak sortu ditut, euskara klaseak eman ditut, antzerki klaseak...

3- Zein da espazio honen helburua?
Espazio honek helburu asko ditu. Aditza eta ekintza datozkit burura: sortu, jolatu, ikertu, okertu, konpartitu, pentsatu, sentitu, ukitu, entzun, ikusi, eztabaidatu, margotu, dantzatu, mugitu, astindu, probatu, amestu... azken finean: bidaia. Bizitza bidaia bat da, une batez gaude hemen; ez gaude betiko. Eta bidaia izateko hegan egin eta amets egin behar dugu. Gauean daramagun zama guztia momentu batez kentzea lortu nahi du.

4- Nola joan da 1. hilabetea?

Elkarriketa osorik www.guaixe.net-en.

Baabestiak dioen bezala, "txiki, txiki, txikia... handitzen handitzen... hasi naiz handitzen txikia izanik... asko maite zaitut...". Poliki-poliki familia handitzen ari gara eta oso pozik nago. Benetan gauzak bihotzarekin egiten direnean kolore eta energia berezia sumatzen da.

5- Jendeak interesa dauka?
Oso harrera ona eduki du. Niretzat garrantzitsuenak dasartzen diren guztiak irribarre batekin irteten dira. Bezero hitza ez zait gustatzen. Hemen partaideak gara, kideak.

6- Zer nolako ikastaroak eskaintzen dituzu?
Ikastaro guztiak gauza komun bat dute: sormena, irudimena eta artea estimulatzen abiatzen dira. Batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz edota ingeleraz ere. Batzuk umeei soilik zuzendutakoak, beste batzuk helduei soilik zuzendutakoak, azkenik, familiari zuzendutakoak (ama, aita, amona...) elkarren arteko komunikazioa sustatzen duten elkarrekin "lan egiten".

7- Zer da eskaintzen duzun zerbitzuetatik gehien gustatzen zaiena? Eta zeinekin disfrutatzen duzu zuk gehien?
Momentuz goizetako Playgroup proiektua da harrera gehien izan duena. Umeek beste umeekin jolatu dezakete, haiekin erlaziozatu, musikarekin eta arte proiektuetan murgilduz. Oso espazio libre eta eroso da. Etxean bezain ondo sentitzea da gure helburua.

8- Euskara eta ingelesa tartekatzen dituzu ekintzetan. Zergatik?
Goizetan euskara eta ingelesa tartekatzen ditugu. Bi pertsona gara: ni, euskalduna, eta beste bat ingelesa. Xedea ez da bi hizkuntzak ikastea, baizik eta bi hizkuntzetan jolastea. Arratsaldetako ikastaroak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesaz izaten dira. Hiru hizkuntzetan jolasten gara eta espazio irekia dago beselako hizkuntzetan jolasteko ere. Aniztasunak aberastasuna dakar.

9- Musika kontzertuak ere egiten dira bertan. Zergatik musika klasikoa?
Urtarrilean izan genuen gure lehen-dabiziko kontzertua eta marsuaren 2an, larunbatean, 17:00etan bigarren kontzertua egingo dugu. Oso harrera ona izan dute. Bi musikari eta ni gara.

10- Zergatik egin duzu espazio hau Iruñean?
Urte asko kanpoan eman ditut eta beti argi izan dut Iruñera bueltatuko nintzela nire kabia egitera. Eta momentu hori iritsi zait. Nire kabia sortzen ari naiz. Alde zaharra beti gustukoa izan dut. Hiri eta herri guztietako alde zaharrak bereziak dira.

11- Sakanan horrelako espazio bat sortzeko aukera dagoela uste duzu?
Edozein lekutan espazio sortzaile batek egin daiteke, zergatik ez? Sakanan aldean artista asko dago, ilustratzaileak, aktoreak, musikariak...

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

34

guaixe.net

Berri edukiak

Non egon dira ilbeltzeko Guaixearen azalak?

405. Guaixe: Avia (Hiriberri), Clinker (Olazti), Mendilore center (Bakaiku) eta Biltoki (Altsasu).

406. Guaixe: Vizu ileapaindegia (Iturmendi) eta Flory ileapaindegia (Altsasu).

407. Guaixe: Argiro Optika (Etbarri Aranatz) eta Larka (Altsasu).

408. Guaixe: Mª Jose ileapaindegia (Arbizu), Javier Aizpun harategia (Uhartea Arakil) eta Ford Gabirondo (Altsasu).

Otsaileko saritua: Idoia Alkorta

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea